

2019KO EZAUGARRI METEOROLOGIKOAK
CARACTERÍSTICAS METEOROLÓGICAS DEL AÑO 2019

RESUMEN ANUAL

Los acumulados califican el año 2019 entre húmedo y muy húmedo. Las zonas con un porcentaje de precipitación mayor respecto a lo normal se encuentran en torno a la comarca de Gernika-Bermeo y a lo largo de la divisoria principal de aguas. En relación a los últimos años, ha sido uno de los más húmedos, por detrás del 2013.

Los valores más altos se han registrado en la zona montañosa del noreste de Gipuzkoa, muga con Navarra, donde se han superado los 2000 mm, con una estación muy destacada por encima del resto (Eskas 3021 mm, Añarbe 2496 mm, Ameraun 2373 mm, Berastegi 2168 mm). Les siguen otros puntos del litoral más oriental y del interior guipuzcoano (Oiartzun 1817 mm, Lasarte 1728 mm, Bidania 1780 mm). Igualmente, destacan otros máximos secundarios en las comarcas litorales de Bizkaia y hacia la divisoria principal de aguas (Muxika 1680 mm, Urkiola 1761 mm, Iruzubieta 1696 mm). Los acumulados más bajos, en el sur de Álava (Moreda 495 mm, Zambrana 552 mm, Páganos 569 mm). En el Gran Bilbao se han situado entre los 1100-1300 mm (Derio 1415 mm, Abusu 1283 mm) y han rondado los 700-800 mm en la Llanada más occidental (Abetxuko 841 mm, Alegría 822 mm).

No se observan tendencias temporales dentro del año, sino que las calificaciones han ido cambiando mes a mes. Otro tanto se puede decir espacialmente, con diferencias significativas en las calificaciones entre la costa y el interior en muchos meses.

El mes más extremo ha sido, sin duda, noviembre, el más lluvioso desde que existen registros en el litoral, hacia el Duranguesado y la Llanada Alavesa. Así, las tres capitales vascas habrían superado el record de sus respectivas series históricas. Aún más, en Donostia-San Sebastián e inmediaciones sería incluso la precipitación mensual más alta de todo el año. Además, sería efeméride del número de días de precipitación apreciable (≥ 0.1 mm) en las estaciones de referencia de la capital alavesa y guipuzcoana, también en la Rioja Alavesa.

En cuanto a las precipitaciones máximas diarias, son numerosos los episodios que merece la pena comentar, por su incidencia en la subida del nivel de los ríos.

Empezamos recordando el sucedido los días 23 a 25 de enero, cuando se acumulan cantidades por encima de 150 mm en puntos repartidos por la CAV (Berastegi 200.9 mm, Cerroja 174.6 mm, Ameraun 164.9 mm, Ibai Eder 155.6 mm, Bidania 153.1 mm, Gorbea 145.6 mm), en algunos casos rondando o por encima de lo que suele caer en todo el mes. Vienen precedidos, además, de nevadas el día 22, cuando la cota baja a 500-600 m en zonas del este de Álava y en los valles interiores de Gipuzkoa. De hecho, nieva en las inmediaciones de la Cuadrilla de Salvatierra. Los montes del interior reciben entonces un buen paquete de nieve, con espesores muy abundantes. Como resultado de todo este volumen de agua son varias las estaciones de aforo que alcanzan el nivel naranja entre las últimas horas del día 23 y la mañana del día siguiente, localizadas principalmente en la cabecera de cuencas tanto de la vertiente mediterránea, Zadorra y Baia, como de la cantábrica, Nerbioi, Ibaizabal y

URTEKO LABURPENA

Pilatutako prezipitazioaren arabera, 2019a hezea eta oso hezearen artekoa izan zen. Ehunekotan ohi baino prezipitazio handiagoa pilatu zuten eremuak Gernika-Bermeo eskualdearen ingurua eta isurialdeen banalerro ingurua izan ziren. Azken urteekin alderatuta, hezeenetakoa izan zen, 2013koaren atzetik.

Prezipitazio kopuru handienak Gipuzkoa ipar-ekialdeko mendi inguruetan jaso ziren, Nafarroako mugan, non 2000 mm baino gehiago pilatu ziren. Estazio guztien artean bat nabarmendu zen (Eskas 3021 mm, Añarbe 2496 mm, Ameraun 2373 mm, Berastegi 2168 mm). Ondoren, kopuru handiak jaso ziren ere ekialdeko kostaldean eta Gipuzkoa barnealdean dauden estazioetan (Oiartzun 1817 mm, Lasarte 1728 mm, Bidania 1780 mm). Horrez gain, Bizkaiko kostaldean eta isurialdeen banalerroan dauden maximo sekundario batzuk azpimarra daitezke (Muxika 1680 mm, Urkiola 1761 mm, Iruzubieta 1696 mm). Prezipitazio kopuru txikiak Araba hegoaldean jaso ziren (Moreda 495 mm, Zambrana 552 mm, Párganos 569 mm). Bilbao Handian 1100-1300 mm (Derio 1415 mm, Abusu 1283 mm) artean jaso ziren eta 700-800 mm inguru Arabako Lautadako mendebaldean (Abetxuko 841 mm, Alegría 822 mm).

Ez da ikusten urte barruko aldi baterako joerarik, izan ere kalifikazioak aldatzen joan ziren hiletik hilerara. Beste horrenbeste esan daiteke banaketa espazialari buruz, hilabete askotan kostaldearen eta barnealdearen arteko kalifikazioetan alde nabarmenak baitaude.

Hilabeterik muturrekoena, zalantzarik gabe, azaroa izan zen; Kostaldean, Durangaldean eta Arabako Lautadan erregistroak daudenetik euritsuena izan zen. Horrela, hiru euskal hiriburuek beren serie historikoen errekorra gainditu zuten. Are gehiago, Donostian eta inguruan urteko hilabeterik euritsuena izan zen. Gainera, prezipitazio nabarmeneko (≥ 0.1 mm) euri-egunen efemeridea izan zen Arabako eta Gipuzkoako hiriburuetakoa erreferentziako estazioetan, baita Arabako Errioxan ere.

Eguneko prezipitazio maximoen dagokienez, asko dira aipatzeko gertaerak, ibaien mailarenigoeran izan zuten eraginagatik.

Urtarrilaren 23tik 25era gertatutakoa gogoratuz hasiko gara, 150 mm-tik gorako kopuruak jaso baitziren EAEn zehar banatutako estazioetan (Berastegi 200.9 mm, Cerroja 174.6 mm, Ameraun 164.9 mm, Ibai Eder 155.6 mm, Bidania 153.1 mm, Gorbea 145.6 mm), kasu batzuetan hilabete osoan jaso ohi dena baino gehiago jaso zen hiru egunetan. Horrez gain, hilaren 22an elurra egin zuen Araba ekialdean eta Gipuzkoa barnealdeko bailaretan 500-600 m ingurura. Esaterako, elurra egin zuen Arabako Lautadako Kuadrila inguruan. Barnealdeko mendietan elur-geruza handia pilatu zen. Ur-bolumen guzti haren ondorioz (pilatutako elurra gehi euria) hainbat aforo-estaziotan maila laranjara iritsi ziren hilaren 23an azken orduetan eta 24an goizean. Estazio gehienak Arroen goialdean daude: Mediterraneo isurialdean Zadorra eta Baia, eta Kantauri isurialdean Nerbioi, Ibaizabal eta Kadagua. Gipuzkoan ere hainbat aforo-estaziotan iritsi ziren maila horira, Debako arrotik hasi eta Urumeako arrora bitartean. Maila horiez gain, beste gorabehera batzuk ere izan ziren: Omecillo

Kadagua. En Gipuzkoa, de la cuenca del Deba hasta la del Urumea son numerosas también las estaciones de aforo que llegan al nivel amarillo. A parte de estos niveles, se tiene constancia de otras incidencias: el Omecillo se sale de su cauce en Espejo; otro tanto le sucede a la ría de Bilbao a la altura de Zorrozaurre, coincidiendo con la pleamar; en los ríos Oria y Leizaran se producen pequeños desbordamientos.

Poco después, el 31 de enero las precipitaciones se encuentran muy repartidas por todo el territorio, superando los 40 mm en zonas del interior de la vertiente cantábrica (Zegama 61.4 mm, Eskas 51.2 mm, Berna 50.3 mm, Amorebieta 49.9 mm, Berastegi 45 mm, Lasarte 47.1 mm), los 25 mm en el norte de Álava (Abetxuko 35.2 mm, Salvatierra 28.1 mm). A últimas horas son varias los aforos que llegan a nivel naranja en las cuencas del Deba y del Oria, y la estación de Abetxuko vuelve a subir del nivel amarillo.

En el mes de mayo durante la noche del 18 y primera mitad del 19 tenemos el episodio de precipitación más importante de la primavera. En el nordeste de Gipuzkoa los registros superaron los 100 mm en 24 horas (Eskas, 162.2 mm; Añarbe, 129.9 mm; Oiartzun, 127.7 mm; Miramon 103.7 mm). Esto provocó que el nivel de los ríos en las cuencas del Urumea, Oiartzun y Bidasoa superara el nivel naranja.

El día 8 de noviembre llega otra situación adversa, al registrarse cantidades muy abundantes en prácticamente toda la vertiente cantábrica y el norte de Álava, por encima de 60 mm en el sur de la comarca de Gernika-Bermeo (Muxika 72.3 mm), el Duranguesado (Amorebieta 84.4 mm, Mañaria 90.9 mm, Berna 82 mm, Eitzaga 75.6 mm), hacia el Alto Deba (Oñati 65.5 mm, San Prudentzio 67.7 mm) y en algún que otro punto disperso del interior de Gipuzkoa (Zegama 76.4 mm, Aitzu 73 mm, Amaraun 73.1 mm). Con la precipitación de los días precedentes la respuesta hidrológica es rápida, de manera que varios aforos llegan al nivel naranja: en la cuenca del Deba, Aixola (0.760 m 17:00); en la del Ibaizabal, Amorebieta (3.280 m 22:10) y Elorrio 1.9 m 20:50). La vigilancia ha de extenderse también a otros ríos que llegan a nivel amarillo en diferentes cuencas, sobre todo de Gipuzkoa.

Del 11 al 13 de diciembre es también otro periodo muy lluvioso. Los acumulados en 24 horas desde el mediodía del día 12 superan los 60 mm en numerosos puntos del interior de la vertiente cantábrica (Eskas 85.5 mm, Eitzaga 72.9 mm, Zegama 66.8 mm, Oñati 65 mm) y alguno del norte de la vertiente mediterránea (Gorbea 70.2 mm). Aforos de las cuencas del Deba, Urola, Oria y Zadorra superan el nivel naranja a últimas horas del día 12, madrugada y primeras horas del siguiente.

En cuanto a los episodios de nieve, los de enero podemos agruparlos en cuatro, siempre en cotas medias-altas. El primer aviso llega el día 9 a últimas horas. Mucho más relevante es el de los días 22 a 24, sobre todo en esa primera jornada, como antes se ha comentado. La nieve vuelve a hacer acto de presencia por debajo de los 1000 m entre los días 27 y 28. Casi sin solución de continuidad, el día 29 se produce un empeoramiento de la situación por la tarde-noche. Por su parte, febrero arranca con un intenso temporal, que deja nevadas en cotas medias-bajas. La tarde-noche del día 2 baja hasta los 300-400 m, ocasionalmente más baja en áreas de tormenta.

ibaia bere ibilgutik atera zen Espejon; beste horrenbeste gertatu zen Bilboko itsasadarrean Zorrozaurre parean, itsasgorarekin bat eginez; Oria eta Leitzaran ibaietan ere uholde txikiak gertatu ziren.

Orduetik epe laburrera, urtarrilaren 31n, prezipitazioa oso sakabanatuta egin zuen lurralde osoan, eta 40 mm-tik gora pilatu ziren Kantauri isurialdearen barnealdean (Zegama 58.5 mm, Eskas 48.8 mm, Berna 47.9 mm, Amorebieta 47.5 mm, Berastegi 45 mm, Lasarte 44.9 mm), 25 mm Araba iparraldean (Abetxuko 35.2 mm, Salvatierra 25.6 mm). Azken orduetan hainbat izan ziren Deba eta Oria ibaien arroetan maila laranja iritsi ziren aforo-estazioak, eta Abetxukoko estazioa berriro ere maila horira iritsi zen.

Maiatzean, 18ko gauean eta 19ko lehen erdian, prezipitazioari dagokionez, udaberriko gertaerarik garrantzitsuena izan genuen. Gipuzkoako ipar-ekialdean 100 mm baino gehiago pilatu ziren 24 orduan (Eskas, 162.2 mm; Añarbe, 129.9 mm; Oiartzun, 127.7 mm; Miramon, 103.7 mm). Horrek Urumea, Oiartzun eta Bidasoa ibaien arroetan maila laranja gainditzea eragin zuen.

Azaroaren 8an muturreko beste egoera bat gertatu zen, prezipitazioa oso ugaria izan baitzen ia Kantauri isurialde osoan eta Araba iparraldean. 60 mm baino gehiago pilatu ziren Gernika-Bermeo eskualdearen hegoaldean (Muxika 72.3 mm), Durangaldean (Amorebieta 84.4 mm, Mañaria 82.7 mm, Berna 71.4 mm, Eitzaga 68.8 mm), Debagoienan (Oñati 62.4 mm, San Prudentzio 61.6 mm) eta Gipuzkoa barnealdeko estazio bakan batzuetan (Zegama 63.7 mm, Aitzu 63.6 mm, Ameraun 63.6 mm). Aurreko egunetan ere euria ugari egin zuenez, erantzun hidrokologoa oso azkarra izan zen, eta hainbat aforo-estazio maila laranja iritsi ziren: Debako arroan, Aixola (0.760 m 17:00); Ibaizabalen arroan, Amorebieta (3.280 m 22:10) eta Elorrio 1.9 m 20:50). Maila horira iritsi ziren beste ibai batzuetara ere zabaldu behar izan zen zaintza, batez ere Gipuzkoakoetara.

Abenduaren 11tik 13rako tartea ere oso euritsua izan zen. Hilaren 12ko eguerditik aurrera, kantauri isurialdearen barnealdeko leku askotan 60 mm baino gehiago pilatu ziren 24 orduan (Eskas 85.5 mm, Eitzaga 72.9 mm, Zegama 66.8 mm, Oñati 65 mm) eta baita Mediterraneo isurialdearen iparraldeko leku batzuetan ere (Gorbeia 70.2 mm). Deba, Urola, Oria eta Zadorra ibaiek maila laranja gainditu zuten hilaren 12ko azken orduetan, eta hurrengo eguneko goizaldean eta goizean goiz.

Elurrari dagokionez, urtarrileko gertaerak lautan bil ditzakegu, beti ere maila ertain-altuetan egin zuen. Lehen abisua hilaren 9an igorri zen, azken orduetan. Askoz ere garrantzitsuagoa izan zen hilaren 22tik 24ra bitarteko gertaera, batez ere lehen eguneko. Elurra 1000 metrotik behera egin zuen berriro ere hilaren 27tik 28ra bitartean. Ia etenik gabe, hilaren 29an egoerak okerrera egin zuen arratsalde-gau partean. Bestalde, otsaila denborale handi batekin hasi zen, eta elurra egin zuen maila ertain-baxuetan. Otsailaren 2an, arratsalde-gauean, elur-kota 300-400 m-ra jaitsi zen, eta ekaitz-eremuetan zertxobait beherago. Hilaren 3ko goizaldean elurra egiten jarraitu zuen, baina tarteka. Gertakarian, lodierak 5-10 cm ingurukoak izan ziren Arabako Lautadako ekialdean eta isurialdeen banalerroan.

Durante la madrugada del 3 sigue nevando, aunque de manera más intermitente. En el episodio los espesores llegaron a rondar los 5-10 cm en puntos de la Llanada oriental y de la divisoria de aguas.

En primavera, durante el día 19 de marzo se producen nevadas en cotas en torno a 800-1000 metros. En abril, destaca el episodio de nevadas tardías durante la noche del 3 y madrugada del día siguiente, cuando la cota desciende hasta los 500-600 m.

Ya en la segunda parte fría del año, el primer episodio de nevadas por debajo de 1000 m de la temporada llega a últimas horas del día 9 de noviembre y todo el día 10, en torno a 500-600 m en el este de la Llanada Alavesa y Montaña Alavesa. Después, sucede otro desde últimas horas del día 14 de noviembre hasta primeras horas del día 16. El momento más adverso es durante el día central, cuando la cota ronda los 600-700 m, en una jornada de acumulados abundantes generalizados.

En cuanto a la intensidad de la precipitación, julio fue un mes muy activo en este sentido. Entre los numerosos episodios de tormentas acaecidos, destacaremos las del 23 al 25, en plena situación de temperaturas altas persistentes. Así, por las tardes nos cruzan líneas de inestabilidad con chubascos fuertes, puntualmente muy fuertes en esa última jornada, concretamente en Otxandio, 36.5 mm/h.

Agosto ha aportado también varios episodios de precipitaciones intensas. En primer lugar, destaca el día 1, el más lluvioso del mes, cuando llegan a muy fuertes en puntos del interior de Álava y Gipuzkoa (Etura 30.9 mm/h, Subijana 28.1 mm/h, Trebiño 25.7 mm/h, Urkulu 24.5 mm/h). Después, el día 26 las tormentas afectan sobre todo a las Estribaciones del Gorbea y Donostia-San Sebastián, pero caen en más zonas repartidas por la CAPV (Sarria 28.4 mm/h, Eskas 26 mm/h, Añarbe 24.1 mm/h, Galdakao 18.6 mm/h, Oiartzun 18.3 mm/h, Gorbea 18.2 mm/h, Cerroja 17.9 mm/h). En el eje del Ebro la intensidad es moderada, aunque se tiene constancia de la presencia de granizo en localidades como Lapuebla de Labarca y Lanciego, con una afección limitada en el viñedo (Kanpezu 11.8 mm/h, Páganos 10.6 mm/h, Moreda 8.2 mm/h).

Otro tanto se puede decir de septiembre, aunque con intensidades más moderadas, puntualmente fuertes, como los del día 10 por la mañana, que vienen acompañados de aparato eléctrico en el litoral (Otxandio 25.3 mm/h, Galdakao 20.2 mm/h, Mañaria 19.8 mm/h, Urkiola 17.2 mm/h, Berna 16.1 mm/h, Eskas 15.9 mm/h, Almike 15.2 mm/h, Iurreta 15.1 mm/h).

Las temperaturas medias de las estaciones de referencia para el País Vasco califican el año como muy cálido.

En la franja litoral las medias se han situado entre los 14-15 °C (Derio 14.1 °C, Zarautz 14.7 °C). En los valles interiores de Bizkaia y Gipuzkoa han sido algo más bajas (Ordizia 13.5 °C, Amorebieta 13.5 °C), mientras que en la Llanada Alavesa han

Udaberrian, martxoaren 19an, 800-1000 m inguruan elurra egin zuen. Apirilean nabarmentzekoa da elurte berantiarrek gertatu zirela hilaren 3ko gauean eta hurrengo eguneko goizaldean; orduan 500-600 m-ra jaitsi zen elur-maila.

Urteko bigarren zati hotzean, 1000 m-tik beherako lehen elurtea azaroaren 9ko azken orduetan eta hilaren 10ean gertatu zen; 500-600 m inguruan egin zuen elurra Arabako Lautadaren ekialdean eta Arabako Mendialdean. Ondoren, azaroaren 14ko azken orduetatik 16ko lehen orduetara beste elurte bat gertatu zen. Elur-maila gehien jaitsi zen eguna hilaren 15a izan zen, 600-700 m ingurura, eta egun hartan pilatutako prezipitazioa ugaria izan zen leku askotan.

Prezipitazioaren intentsitateari dagokionez, uztaila oso hilabete aktiboa izan zen. Ekaitzen gertakari ugari gertatu ziren eta haien artean 23tik 25era bitartekoak nabarmenduko ditugu. Ekaitz-gertakariak izan zirenean tenperatura altu iraunkorren egoeran geunden. Horrela, arratsaldetan ezegonkortasun-lerroek zeharkatu zuten EAE eta zaparrada handiak bota zituen, azkeneko egunean zenbait lekutan oso handiak, Otxandion zehazki, 36.5 mm/h.

Abuztuan ere prezipitazio handiko gertaera asko izan ziren. Lehenik, hilaren 1a nabarmendu behar da, hilabeteko egunik euritsuena izan zen, eta Arabako eta Gipuzkoa barnealdeko zenbait lekutan zaparradak oso handiak izan ziren (Etura 30.9 mm/h, Subijana 28.1 mm/h, Trebiño 25.7 mm/h, Urkulu 24.5 mm/h). Gero, hilaren 26an trumoi-ekaitzek Gorbeia inguruan eta Donostialdean eragin zuten bereziki, baina EAEn han-hemenka ere zaparrada handiak bota zituen (Sarria 28.4 mm/h, Eskas 26 mm/h, Añarbe 24.1 mm/h, Galdakao 18.6 mm/h, Oiartzun 18.3 mm/h, Gorbea 18.2 mm/h, Cerroja 17.9 mm/h). Ebro ondoko eskualdean zaparraden intentsitatea ertaina izan zen, baina herri batzuetan txingorra bota zuenaren ebidentziak daude, adibidez Lapuebla de Labarcan eta Lantziegon, izan ere txingorrak mahastiak kaltetu zituen (Kanpezu 11.8 mm/h, Páganos 10.6 mm/h, Moreda 8.2 mm/h).

Beste horrenbeste esan daiteke irailaz, nahiz eta intentsitateak hain handiak ez izan. Hala ere, unean-unean zaparradak handiak izan ziren, hala nola 10eko goizean, gainera itsasertzean deskarga elektrikoak ere izan ziren (Otxandio 25.3 mm/h, Galdakao 20.2 mm/h, Mañaria 19.8 mm/h, Urkiola 17.2 mm/h, Berna 16.1 mm/h, Eskas 15.9 mm/h, Almike 15.2 mm/h, lurreta 15.1 mm/h).

Euskal Autonomia Erkidegoko erreferentziako estazioetako batez besteko tenperaturek oso berotzat jotzen dute urtea.

Kostaldean batez besteko tenperatura 14-15 °C artekoa izan zen (Derio 14.1 °C, Zarautz 14.7 °C). Bizkaia eta Gipuzkoa barnealdean zertxobait baxuagoak izan ziren (Ordizia 13.5 °C, Amorebieta 13.5 °C), bitartean Arabako Lautadan 11.5 °C ingurukoak izan ziren (Arkauti 11.7 °C, Salvatierra 11.5 °C) eta gradu bat altuagoak Arabako Errioxan (Páganos 12.7 °C). Balio horiek 1981-2010 denboraldiko batezbesteko normaletik 0.7 °C inguru urruntzen dira lurralde osoan. Mende honetako urteekin alderatuz, tarteko postuetan dago, 2019ko, 2011ko, 2006ko eta 2003ko batezbestekoetatik urrun.

rondado los 11.5 °C (Arkauti 11.7 °C, Salvatierra 11.5 °C), un grado más altas en la Rioja Alavesa (Párganos 12.7 °C). Estos valores se alejan aproximadamente 0.7 °C del promedio normal del periodo 1981-2010 para el conjunto del territorio. En relación a lo que llevamos de siglo, se encuentran en una posición intermedia, lejos de las medias del 2011, 2006 y 2003.

Todos los meses han tenido un carácter cálido o muy cálido, exceptuando enero y mayo, muy fríos; o noviembre, frío.

Ha sido un año en el que se han batido en varias ocasiones records de temperaturas máximas absolutas de las series históricas.

Comienzan haciéndolo el 27 de febrero, en toda la CAV. En los valles cantábricos y en el litoral los valores sobrepasan los 25 °C, hasta rozar los 30 °C en puntos del interior de Gipuzkoa (Ibai Eder 29.9 °C, Alegia 29.2 °C) y otros próximos a la costa, incluida la capital donostiarra (Miramon 28.8 °C, Oleta 28.3 °C). En Bilbao, máximas por encima de ese primer umbral (Derio 27.1 °C, Abusu 25.4 °C), de los 22 °C en la capital alavesa (Abetxuko 22.6 °C).

También lo hacen el día 29 de junio en la vertiente mediterránea. Destacan las temperaturas de Vitoria-Gasteiz (Abetxuko 39.4 °C) y de la Rioja Alavesa (Moreda 42.6 °C), la más alta de la ola de calor. Dos días antes, el 27 se cumple la efeméride de temperatura mínima diaria más alta registrada en la capital alavesa, 19 °C.

El día 23 de julio se alcanzan también valores récord para dicho mes en Donostialdea y alrededores, donde se rondan los 40 °C (Miramon 41.1 °C, Lasarte 40.8 °C, Zizurkil 40.7 °C). En la capital donostiarra se bate un record muy antiguo, que databa de 1920. Valores también por encima de dicho umbral en otros puntos de la vertiente cantábrica (Eitzaga 42.5 °C, Ibai Eder 42.5 °C, Alegia 41.9 °C, Berriatua 41.9 °C, Sodupe 41.4 °C, San Prudentzio 40.7 °C, Areta 40.7 °C, Gardea 40.4 °C, Oleta 40.2 °C, Igorre 40.2 °C, Ordizia 40 °C).

En el otro sentido, en el de las temperaturas mínimas absolutas, hay que recordar el día 12 de junio. En algunas estaciones del interior se trata de los valores más bajos al menos de lo que llevamos de siglo, substituyendo a los anteriores records del 7 de junio de 2002 y del 4 de junio de 2013. En los montes de Iturrieta llega incluso a helar (Iturrieta -0.7 °C), circunstancia que no había sucedido antes a estas alturas del año. En otras estaciones repartidas por el interior de Álava se roza la helada (Trobiño 0.1 °C, Salvatierra 0.4 °C, Subijana 0.8 °C). También se supera el record del siglo XXI en la propia capital vitoriana (Abetxuko 2.4 °C) y en puntos próximos a la divisoria (Altube 1.8 °C, Gorbea 2.4 °C, Urkiola 2.5 °C).

Por tanto, extremos tanto fríos, como cálidos en el mes de junio, todo ello debido a una circulación atmosférica muy meridiana.

Ya el mes anterior, el día 6 de mayo se dan las temperaturas más frías registradas en un mes de mayo, al menos de lo que llevamos de siglo, en diferentes estaciones del interior de la CAV. Las heladas llegan a moderadas en zonas del

Hilabete guztiak beroak edo oso beroak izan ziren, urtarrila eta maiatza izan ezik, haiek oso hotzak; eta azaroa, hotza.

Serie historikoetako tenperatura maximo absolutuak behin baino gehiagotan gainditu ziren.

Otsailaren 27a izan zen errekorreko lehen eguna EAE osoan. Kantauriko bailaretan eta kostaldean 25 °C-tik gora igo zen tenperatura, eta 30 °C-ra hurbildu zen Gipuzkoa barnealdeko zenbait lekutan (Ibai Eder 29.9 °C, Alegia 29.2 °C) eta kostaldetik gertu dauden beste batzuetan, Donostia barne (Miramon 28.8 °C, Oleta 28.3 °C). Bilbon, maximoak lehen muga horretatik gora egon ziren (Derio 27.1 °C, Abusu 25.4 °C), eta Arabako hiriburuan 22 °C-tik gora (Abetxuko 22.6 °C).

Ekainaren 29an ere efemerideak izan genituen Mediterraneo isurialdean. Azpimarragarriak izan ziren Vitoria-Gasteizko (Abetxuko 39.4 °C) eta Arabako Errioxako (Moreda 42.6 °C) tenperaturak, azken hori bero-boladako tenperaturarik altuena. Bi egun lehenago, hilaren 27an tenperatura minimo altuenaren efemeridea bete zen Vitoria-Gasteizen, 19 °C.

Uztailaren 23an, Donostialdean eta inguruetan ere errekorreko balioetara iritsi ziren, izan ere 40 °C-ren bueltan ibili ziren (Miramon 41.1 °C, Lasarte 40.8 °C, Zizurkil 40.7 °C). Donostian errekor zaharra hautsi zen, 1920koa. Kantauri isurialdeko beste puntu batzuetan ere atalase horretatik gorako balioak neurtu ziren (Eitzaga 42.5 °C, Ibai Eder 42.5 °C, Alegia 41.9 °C, Berriatua 41.9 °C, Sodupe 41.4 °C, San Prudentzio 40.7 °C, Areta 40.7 °C, Gardea 40.4 °C, Oleta 40.2 °C, Igorre 40.2 °C, Ordizia 40 °C).

Temperatura minimoei dagokienez, ekainaren 12a gogoratu behar da. Barnealdeko zenbait estaziotan, mende honetan orain arte neurtutako balio baxuenak neurtu ziren, 2002ko ekainaren 7ko eta 2013ko ekainaren 4ko errekorrak ordezkaturik. Iturrietako mendietan izotza egin zuen (Iturrieta -0.7 °C), eta ordura arte horrelakorik ez zen inoiz gertatu urte sasoi horretan. Arabako beste estazio batzuetan 0 °C-tik hurbil ibili ziren (Trobiñu 0.1 °C, Agurain 0.4 °C, Subijana 0.8 °C). Vitoria-Gasteizen (Abetxuko 2.4 °C) eta isurialdeen banalerrotik gertuko puntuetan (Altube 1.8 °C, Gorbeia 2.4 °C, Urkiola 2.5 °C) XXI. mendeko errekorra gainditu zen.

Beraz, muturreko balio hotzak zein beroak izan genituen ekainean; hori guztia zirkulazio atmosferiko oso meridianoaren ondorioz.

Aurreko hilean, maiatzaren 6an, EAeko barnealdeko hainbat estaziotan maiatzean inoiz izandako tenperaturarik baxuenak neurtu ziren, mende honi dagokionez behintzat. Araba erdialdeko zenbait lekutan izotz handia egin zuen (Iturrieta, -4.6 °C; Agurain, -3.5 °C; Trobiñu, -3.4 °C; Pagoeta, -3.3 °C; Albaina, -3.2 °C; Navarrete, -3.2 °C), eta sasoi horretan izotza egitea ohikoa ez den zenbait lekutan ere izotza egin zuen; esaterako, Arabako Errioxan (Páganos, 0 °C) eta Kantauri isurialdean (Berastegi, -0.8 °C; Arrasate, 0.1).

interior de Álava (Iturrieta, -4.6 °C, Salvatierra -3.5 °C, Trebiño -3.4 °C, Pagoeta -3.3 °C, Albaina -3.2 °C, Navarrete -3.2 °C) y alcanzan zonas poco frecuentes en esta época, como la Rioja Alavesa (Párganos 0 °C) y zonas de la vertiente cantábrica (Berastegi -0.8 °C, Arrasate -0.1 °C, Saratxo -0.1 °C).

Estas temperaturas han estado acompañadas de una insolación superior a los valores climatológicos normales, hasta casi un 20 % más de horas de sol en la vertiente mediterránea y alrededor del 7 % en la cantábrica.

Temperatura horiekin batera, intsolazioa ere balio klimatologiko normala baino handiagoa izan zen, ia %20 eguzki-ordu gehiago izan genituen Mediterraneo isurialdean eta %7 inguru Kantauri isurialdean.

ENERO

Comenzamos el año con tiempo estable. La situación sinóptica estuvo dominada por un potente bloqueo anticiclónico en forma Omega en el nivel de 500 hPa, con la dorsal extendiéndose desde el norte de África hasta las Islas Británicas. En superficie tiene su reflejo en un más que potente anticiclón, con su centro sobre las Islas Británicas. El día 9 un debilitado frente frío procedente del norte trajo tras él una masa de aire frío de origen polar continental, muy fría pero seca. El día 12 volvió a cambiar la situación sinóptica. Esta vez entra en juego el anticiclón de las Azores estirado algo más hacia el norte. Del 15 al 16 de enero en el nivel de 500 hPa la dorsal se desplazó hacia el este. En superficie el anticiclón de las Azores se desplazó de igual manera, abarcando todo el Cantábrico y parte de Francia. El día 17 una vaguada en el nivel 500 hPa cruza el Cantábrico, guiando en superficie a un activo frente frío. Desde el día 20 el tiempo cambió de forma significativa. Una vaguada nos volvió a afectar. Tras ella la dorsal atlántica generó un bloqueo en Omega sobre el Atlántico. En superficie, el potente anticiclón atlántico con máximos de 1039 hPa, generó un intenso pasillo de vientos del NNW, que se fortaleció el día 23 con la formación de una baja sobre el Golfo de León. El día 27 una profunda vaguada se desplazó por Francia. En superficie, un extenso frente frío asociado a una profunda depresión, que circulaba por el mar del Norte, cruzó toda la Península. A su vez sobre el Atlántico asomó el anticiclón de las Azores y entre ambos centros de acción se formó de nuevo un intenso pasillo de vientos del noroeste. El día 29, durante la segunda mitad del día nos vimos afectados por una depresión que cruzó todo el Cantábrico. A esta depresión se le llamó Gabriel y tuvo una génesis explosiva.

Enero se ha comportado entre húmedo y muy húmedo en toda la CAPV. Los acumulados más altos se localizan en la zona montañosa del este de Gipuzkoa, muga con Navarra (Berastegi 495.5 mm, Ameraun 458.8 mm, Eskas 392.4 mm, Añarbe 365 mm). Como es lógico a tenor de la calificación, ha habido más días de lluvia de lo habitual.

Las temperaturas medias de enero han sido frías o muy frías. En la costa se han movido entre los 6.5-7.5 °C, mientras que en la Llanada Alavesa se han acercado a los 4 °C, aproximadamente 1 °C por debajo de lo normal para el conjunto de la CAPV. Destaca el periodo de 4 a 6, días de profundas inversiones térmicas, con heladas moderadas a fuertes en amplias zonas del interior.

En la primera mitad del mes han predominado los flujos suaves del continente. En la segunda, los flujos marítimos del norte-noroeste, eventualmente intensos. Hasta el día 21 prácticamente no se registran rachas muy fuertes de viento. A partir de entonces lo hace todos los días, excepto el 26. En 4 jornadas llegan a huracanadas.

URTARRILA

Urtea giro egonkorrarekin hasi genuen. Egoera sinoptikoari erreparatuz gero, 500 hPa-eko mailan omega formako antizikloi-blokeoa nagusitu zen, eta gailurra Afrika iparraldetik Britainiar uharteetara luzatuta zegoen. Lurrazalean, antizikloi indartsu bat zen egoera horren isla; antizikloiak Britainiar uharteetan zuen erdigunea. Hilaren 9an, iparraldetik zetorren ahuldutako fronte hotz baten atzetik, jatorri polar kontinentalak zuen aire-masa hotza sartu zen, baina lehorra. Hilaren 12an egoera sinoptikoa aldatu zen berriro. Kasu horretan, Azoreetako antizikloia sartu zen, iparralderantz luzatuta. Urtarrilaren 15etik 16ra, 500 hPa-eko mailan, gailurra ekialderantz mugitu zen. Lurrazalean, Azoreetako antizikloiak ere gauza bera egin zuen eta Kantauriko zonalde osoa eta Frantziako zati bat hartu zituen. Hilaren 17an eguraldia aldatu egin zen. 500 hPa-eko mailan, aska batek Kantauri itsasoa zeharkatu zuen eta lurrazalean fronte hotz eta aktibo bat igaro zen. Hilaren 20tik aurrera egoera nabarmen aldatu zen. Aska batek eragin zigun berriz ere. Horren ondotik, Atlantikoko gailur batek omega itxurako blokeoa ezarri zuen Atlantikoan. Lurrazalean, Atlantikoko antizikloi indartsu batek, 1039 hPa-eko maximoekin, ipar/ipar-mendebaldeko haize-pasabide bat sortu zuen; izan ere, hilaren 23an Liongo Golkoan depresio bat sortu zen. Hilaren 27an eguraldia berriz ere nabarmen kaskartu zen. Aska sakon bat Frantzia barrena mugitu zen. Lurrazalean, Ipar itsasoan zebilen depresio bati loturiko fronte hotz eta luze batek Penintsula osoa zeharkatu zuen. Bestalde, Atlantikoan, Azoreetako antizikloia hurbildu zen eta bien artean ipar-mendebaldeko pasabide indartsu bat sortu zen berriro. Hilaren 29a giro lasaiarekin hasi zen, hego-osagaiko haize ahularekin eta euri gutxirekin. Lasaitasunak ez zuen, ordea, gehiegi iraun. Egunaren bigarren zatian Kantauri osoa zeharkatu zuen depresio baten eraginpean izan ginen. Gabriel izena jarri zioten eta ziklogenesi leherkorra izan zuen.

Urtarrila hezea edo oso hezea izan zen EAE osoan. Gipuzkoa ekialdeko mendi inguruetan pilatu zen prezipitazio gehien, Nafarroako mugan (Berastegi 495.5 mm, Ameraun 458.8 mm, Eskas 392.4 mm, Añarbe 365 mm). Ohi baino baino euri-egun gehiago izan ziren.

Urtarrila hotza edo oso hotza izan zen. Batez besteko tenperatura kostaldean 6.5-7.5 °C artekoa izan zen eta Arabako Lautadan, berriz, 4 °C ingurura hurbildu zen, EAE osoan ohikoa dena baino 1 °C baxuagoa. Hilaren 4tik 6rako tarteak ere nabarmenezkoa izan zen, tenperatura-inbertsio handia izan zen eta izotz txiki-handia bota zuen barnealdeko toki askotan.

Hilaren lehen hamabostaldian eki-osagaiko fluxua nagusitu zen. Bigarrean, berriz, ipar/ipar-mendebaldekoa, tarteka indartsua. Hilaren 21a arte ia ez zen haize-bolada oso gogorrik neurtu. Ordutik aurrera egunero neurtu ziren, 26an izan ezik. Lau egunetan ufadak bortitzak izan ziren.

FEBRERO

El mes de febrero comenzó con tiempo muy inestable e invernal. Una potente depresión fría con un mínimo de 974 hPa en su centro y temperaturas en el nivel de 500 hPa de hasta -35 °C se situó el día 1 al norte de Galicia. A partir del día 4 los días fueron estables y anticiclónicos. El día 7 un frente frío rompió el puente anticiclónico y cruza el Cantábrico. Los días 8 y 9 las altas presiones volvieron a dominar toda la Península. Éstas se extendieron desde el suroeste de la Península hasta los Balcanes con 1025 hPa. El día 10 un frente frío cruzó todo el Cantábrico. A partir del 12 de febrero las altas presiones fueron las claras protagonistas. El día 18 tuvimos un pequeño paréntesis en el buen tiempo. A partir del día 20 las altas presiones cogieron de nuevo fuerza en el continente europeo, por lo que se volvió a bloquear la llegada de borrascas procedentes del Atlántico. A partir del día 28, último día del mes, comienzan a intuirse algunos cambios por el debilitamiento del anticiclón.

Febrero se ha comportado de manera muy seca en la vertiente cantábrica, seca en la mediterránea. Los acumulados más altos se localizan en la zona montañosa del este de Gipuzkoa, muga con Navarra, con apenas 100 mm (Eskas 108.2 mm, Berastegi 98.2 mm, Ameraun 96.5 mm). Como es lógico a tenor de la calificación, ha habido menos días de lluvia de lo habitual. Así, en la vertiente cantábrica el promedio climatológico es de 11 días y este mes hemos observado unos 6. En la Llanada Alavesa el promedio es de algo más de 10, 5 en el actual. Sin embargo, en la Rioja Alavesa han sido casi los mismos, 5 días frente a 4. Estos días de lluvia se han concentrado en los cinco primeros días y el 10-11.

Las temperaturas medias de febrero han sido muy cálidas en la vertiente cantábrica, cálidas en la mediterránea. En la costa han superado los 11 °C, los 6 °C en la Llanada Alavesa, cerca de 2 °C por encima de lo normal para el conjunto de la CAPV. Ahora bien, si tenemos en cuenta las medias de las temperaturas máximas, la anomalía sube hasta casi los 3.5 °C.

En cuanto al viento, hasta el día 11 los flujos predominantes han sido los marítimos, después la componente sur ha sido la protagonista. Ha sido un mes de vientos relativamente tranquilos, especialmente en el último tercio. El umbral de los 100 km/h se ha superado en cinco ocasiones.

OTSAILA

Otsailaren hasieran eguraldia oso ezegonkorra izan zen, negukoa. Hilaren 1ean depresio hotz bat, 974 hPa-eko presio minimoarekin eta $-35\text{ }^{\circ}\text{C}$ temperaturarekin 500 hPa-eko mailan, Galiziako iparraldean kokatu zen. Hilaren 4an eguraldia egonkorra izan zen. Hilaren 7an fronte hotz batek zubi antiziklonikoa hautsi eta Kantauri itsasoa zeharkatu zuen. Hilaren 8an eta 9an Penintsula osoan presio altuak gailendu ziren berriro ere. Presio altuen eremua Penintsularen hego-mendebaldetik Balkanetara hedatu zen eta presioa 1025 hPa-ekoa izan zen. Hilaren 10ean fronte hotz batek Kantauri itsasoa zeharkatu zuen. Otsailaren 12tik aurrera presio altuak izan ziren nagusi. Hilaren 18an eguraldia apur bat ezegonkortu zen. Hilaren 20tik aurrera presio altuak indartu egin ziren berriro ere Europan eta Atlantikoko depresioak guregandik urrun egon ziren. Hilaren 28an, hilaren azken egunean alegia, antizikloiak ahultzera egin zuen eta eguraldia aldatzen hasi zen.

Otsaila kantauri isurialdean oso lehorra izan zen, Mediterraneo isurialdean lehorra. Gipuzkoa ekialdeko mendi inguruetan, Nafarroako mugan, egin zuen euri gehien, 100 mm inguru pilatu ziren (Eskas 108.2 mm, Berastegi 98.2 mm, Ameraun 96.5 mm). Euri-egunak ere ohikoa dena baino urriagoak izan ziren. Kantauri isurialdean batez besteko klimatologikoa 11 euri-egunekoa da otsailean eta 6 euri-egun soilik izan genituen. Arabako Lautadako batezbestekoa, berriz, 10ekoa da eta 5 euri-egun izan ziren. Arabako Errioxan, ordea, 5 izaten dira eta 4 euri-egun izan ziren. Euri-egun horiek hilaren lehenengo bost egunetan eta hilaren 10ean eta 11an izan ziren.

Otsaileko batez besteko temperatura kantauri isurialdean oso beroa izan zen, Mediterraneo isurialdean beroa. Kostaldean batez besteko temperatura $11\text{ }^{\circ}\text{C}$ -tik gorakoa izan zen, Arabako Lautadan $6\text{ }^{\circ}\text{C}$ -tik gorakoa, EAE osoan ohikoa dena baino $2\text{ }^{\circ}\text{C}$ inguru altuagoa. Temperatura maximoak soilik kontuan hartuta baina, anomalia $3.5\text{ }^{\circ}\text{C}$ ingurukoa izan zen.

Hilaren 11ra arte itsasaldeko fluxua izan zen nagusi, gero hego-osagaia gailendu zen. Haizea ahul samar ibili zen orokorrean, batez ere hilabetearen azken herenean. Haize-boladek 100 km/h-ko abiadura bost gertaeratan gainditu zuten.

MARZO

El anticiclón de las Azores asoma desde el suroeste de la Península hasta el golfo de Bizkaia. El día 3 las altas presiones se retiran ligeramente hacia el sur y distintas depresiones transitan a la altura del paralelo 50º. A últimas horas del día 3 y primeras del día 4 un frente frío trae un cambio de tiempo. El día 5 el tiempo se mantiene estable. El día 6 una profunda depresión de 984 hPa se sitúa al noroeste de Galicia con varios frentes asociados a la misma, reflejo de una vaguada que se forma en el seno de una intensa circulación zonal a nivel de 500 hPa. Inmersos en la circulación zonal, entre el paso de una depresión y la siguiente, el tiempo mejora el día 7. El día 9 el anticiclón de las Azores penetra en forma de cuña sobre todo el cantábrico. El día 10 las altas presiones de las Azores se estiran ligeramente hacia el norte y por su flanco oriental resbala un extenso frente frío. Tras el paso del frente frío, las altas presiones se desplazan de nuevo hacia el Cantábrico el día 11 y el tiempo mejora paulatinamente. El día 12 da comienzo con cielos poco nubosos, pero a lo largo del día las nubes van a más. Empujado por una pequeña vaguada en el nivel de 500 hPa, nos llega un frente frío atlántico, que barre todo el Cantábrico durante la segunda mitad del día 12 y hace que el viento sea del noroeste. El día 14 las altas presiones se van desplazando hacia el este. El día 15 el tiempo se estabiliza, con las altas presiones extendidas hasta el golfo de Bizkaia, y el cielo queda libre de nubes. A partir del día 16 y hasta el final del mes predominan las jornadas con altas presiones.

Los acumulados de precipitación califican el mes como muy seco, exceptuando las comarcas litorales, donde se queda en seco. Los acumulados más altos se han situado, en el nordeste de Gipuzkoa, en la muga con Navarra, y han sido los únicos puntos donde se han superado los 100 mm (Eskas 127.4 mm, Añarbe, 110.9 mm, Ameraun, 108 mm, Berastegi 101.1 mm). Los días de lluvia se han concentrado entre el 6 y el 20. En ninguno de ellos encontramos cantidades muy abundantes, es decir, por encima de 30 mm.

Las temperaturas medias califican el mes como cálido. En la costa se han situado entre los 11-12 °C, y en la Llanada Alavesa alrededor de 8.5 °C, unos 0.8 °C por encima de lo normal para el conjunto de la CAPV. El primer tercio del mes ha sido una secuencia de días cálidos. Después se han ido intercalando con fríos. Estas temperaturas han estado acompañadas de una alta insolación, casi un 50 % más elevada de lo habitual en esta época del año.

Durante el primer tercio del mes los vientos predominantes son del sur, aunque con giros del viento al oeste-noroeste coincidiendo con pasos frontales. Son los días más ventosos, especialmente con el viento del suroeste, superándose varias jornadas los 100 km/h en zonas expuestas.

MARTXOA

Lehen egunetan Azoreetako antizikloia Iberiar penintsularen hego-mendebaldetik Bizkaiko Golkora hurbildu zen. Hilaren 3an presio altuak hegoaldera mugitu ziren eta hainbat depresio 50 °l paraleloan mugitu ziren. Hilaren 3an, azken orduetan eta hilaren 4an, lehen orduetan, fronte hotz batek eguraldiaren aldaketa ekarri zuen. Hilaren 5ean eguraldi egonkorra izan genuen. Hilaren 6an, erdigunean 984 hPa-eko presioa zuen eta hainbat fronte loturik zituen depresio oso sakon bat Galizia ipar-mendebaldean kokatu zen; 500 hPa-eko mailako zirkulazio indartsuaren barnean sortu zen ibar baten isla izan zen, hain zuzen. Zirkulazio zonalean murgilduta, depresio bat pasa eta bestea iritsi bitartean, hilaren 7an eguraldiak hobera egin zuen. Hilaren 9an Azoreetako antizikloia ziri moduan sartu zen Kantaurin. Hilaren 10ean Azoreetako antizikloia iparraldera luzatu zen pixka bat eta ekialdeko hegaletik fronte hotz luze bat mugitu zen. Fronte hotza pasa ondoren, hilaren 11n presio altuak Kantaurira luzatu ziren berriro ere eta pixkanaka eguraldiak hobera egin zuen. Hilaren 12an, egunaren hasieran zerua hodei gutxirekin zegoen, baina eguna aurrera joan ahala hodeiak ugartuz joan ziren. Egunaren bigarren partean 500 hPa-eko mailan zegoen aska baten ondorioz lurrazalean Atlantikoko fronte hotz bat sortu zen, eta hark Kantauri itsasoa zeharkatu zuen; orduan, haizeak ipar-mendebaldera egin zuen. Hilaren 14an presio altuak ekialdera alendu ziren. Hilaren 15ean eguraldiak egonkortzera egin zuen; presio altuak Bizkaiko golkoan zabaldu ziren eta zerua garbi geratu zen. Hilaren 16tik aurrera eta hilaren amaiera arte presio altuko jardunaldiak nagusitu ziren.

Prezipitazioari dagokionez, martxoa oso lehorra izan zen, kostaldean izan ezik, han lehorra izan zen. Ia EAE osoan urte sasoi horretan ohikoa den prezipitazioaren erdia bakarrik pilatu zen. Prezipitazio gehien Gipuzkoa ipar-ekialdean pilatu zen, Nafarroako mugan, eta zonalde horretan soilik pilatu ziren 100 mm baino gehiago (Eskas 127.4 mm, Añarbe, 110.9 mm, Ameraun, 108 mm, Berastegi 101.1 mm). Euri-egunak hilaren 6tik 20ra bitartean pilatu ziren. Egun horietako batean ere ez zen izan pilatutako prezipitazioa oso ugaria, hots, 30 mm baino handiagoa.

Batez besteko tenperaturari erreparaturaz, martxoa beroa izan zen. Kostaldean 11-12 °C artekoa izan zen batez besteko tenperatura eta Arabako Lautadan 8.5 °C ingurukoa, EAE osoan ohikoa baino 0.8 °C altuagoa. Hilaren lehen herenean hainbat egun bero izan genituen jarraian. Ondoren, egun hotzak tartekatuz joan ziren. Tenperatura altuez gain, azpimarragarria izan zen intsolazioa, sasoi horretan ohikoa dena baino % 50 handiagoa.

Hilaren lehen herenean hegoaldeko haizea nagusitu zen, baina fronteak igaro ziren uneetan haizeak mendebal/ipar-mendebaldera egin zuen. Horiek izan ziren egunik haizetsuenak, hego-mendebaldekoko haizearekin bereziki, eta haizegunetan 100 km/h-ko abiadura gainditu zen hainbat egunetan.

ABRIL

Abril comienza con tiempo estable, gracias a una pequeña área de altas presiones que se sitúa sobre el Golfo de Bizkaia durante la primera mitad del día. El día 2 una depresión fría se descuelga desde las Islas Británicas y un extenso frente frío asociado a la misma cruza el Cantábrico durante la tarde-noche. El día 3 tras el paso del frente frío penetra una masa de aire polar marítima. Del 5 al 7 en 500 hPa una gran área de bajas presiones se extiende desde el oeste de las Islas Británicas hasta el oeste de la Península. En superficie la situación es similar. El día 8 una nueva vaguada se aproxima desde el Atlántico. El día 9 la depresión se sitúa cerca de Finisterre, con un frente ocluido bien definido. El día 10 la depresión se deshace y el flujo predominante pasa a ser del norte-nordeste, con un anticiclón en el Mar del Norte y bajas presiones en el Golfo Génova. También aparece aire frío en el nivel de 500 hPa sobre el Cantábrico. El día 11 el tiempo es similar. Durante el viernes 12 la situación tiende a la estabilidad de forma clara. Las altas presiones centradas en los Países Escandinavos, con valores en su seno de hasta 1039 hPa, se funden en un puente anticiclónico con el alta de las Azores. Durante la primera mitad del lunes, día 15, sopla viento sur; durante la segunda se produce una galerna. Los días 16 y 17 se vuelve a estabilizar el tiempo. A partir del día 18 se forma una depresión aislada en altura sobre la Península, al estrangularse de la circulación general una vaguada. En el norte de Europa continúan predominando las altas presiones. La DANA viene acompañada de varios frentes en superficie. El día 22 la DANA se deshace y el tiempo es estable. Del 23 al 26 de abril nos vemos afectados por una vaguada en 500 hPa. Los últimos días predominará el anticiclón Atlántico.

Los acumulados de precipitación califican el mes, en general, como seco, aunque en el suroeste alavés o en el litoral la calificación se queda en normal. Los más altos se localizan en la zona montañosa del este de Gipuzkoa, muga con Navarra. Los días de lluvia se han movido entre los 9 de la Rioja Alavesa y los 17 de Donostia-San Sebastián. En cuatro de ellos se han alcanzado cantidades muy abundantes, por encima escasamente de los 30 mm.

Las temperaturas medias han sido entre normales y cálidas. En el litoral se han ubicado entre los 12-13 °C, mientras que en la Llanada Alavesa han rondado los 10 °C. Hasta el día 13 han predominado los días fríos, a partir de entonces lo han hecho los cálidos. Estas temperaturas han estado acompañadas de una insolación muy próxima a los valores normales.

Predominio de los vientos de segundo y tercer cuadrante, aunque también se dan días de viento de cuarto cuadrante destacables. El viento sopla intenso en general, con rachas muy fuertes muchos días, tanto en zonas expuestas, como en no expuestas. Las rachas superan los 100 km/h en cuatro ocasiones, siempre por viento de componente sur.

APIRILA

Apirila eguraldi egonkorrarekin hasi zen, egunaren lehen partean Bizkaiko golkoan kokatu zen presio altuen eremu txiki bati esker. Hilaren 2an depresio hotz bat askatu zen Britainiar uharteetan eta hari loturiko fronte hotz batek Kantauri zeharkatu zuen arratsalde-gauean. Hilaren 3an, fronte hotza pasa ondoren itsasaldeko aire masa polar bat sartu zen. Apirilaren 5etik 7ra 500 hPa-eko mailan ibar handi bat zegoen Britainiar uharten mendebaldetik Iberiar penintsularen mendebaldera hedatuta. Lurrazalean egoera antzekoa izan zen. Hilaren 8an beste ibar bat hurbildu zen Atlantikotik Penintsulara. Hilaren 9an depresioa Finisterretik gertu kokatu zen, ondo definitutako fronte okluitu batekin. Hilaren 10ean depresioa bete egin zen eta haizeak ipar/ipar-ekialdera egin zuen. Ipar itsasoan antizikloi bat zegoen eta presio baxuak Genevako golkoan. 500 hPa-eko mailan aire masa hotza agertu zen Kantaurin. Hilaren 11an eguraldia antzekoa izan zen. Hilaren 12an egonkortzera egin zuen. Eskandinavia inguruan zegoen presio altuen eremua, erdigunean 1039 hPa-ekin, Azoreetako antizikloiarekin lotu zen zubi antizikloniko baten bidez. Hilaren 15ean, egunaren lehen partean, hegoaldeko haizea ibili zen; egunaren bigarren partean enbata gertatu zen. Hilaren 16an eta 17an berriro ere eguraldia egonkortu egin zen. Hilaren 18tik aurrera zirkulazio zonaletik ibar bat askatu zen eta goi-geruzan askatutako depresio bat kokatu zen Iberiar Penintsulan. Europa iparraldean presio altuekin jarraitu genuen. Goi-geruzan askatutako depresioak hainbat fronte zeramatzan loturik lurrazalean. Hilaren 22an goi-geruzetako depresio askea bete egin zen eta eguraldia egonkortu egin zen. Apirilaren 23tik 26ra bitartean 500 hPa-eko mailan aska batek eragin zigun. Azken egunetan Atlantikoko antizikloia nagusitu zen.

Prezipitazioari dagokionez, hilabetea lehorra izan zen, baina Araba hegomendebaldean eta kostaldean kalifikazioa ohikoa izan zen. Euri gehien Gipuzkoa ekialdeko mendi inguruetan egin zuen, Nafarroako mugan. Euri-egunei dagokionez, Arabako Errioxan 9 izan ziren eta gehien Donostian, 17. Euri-egun horiek hilabete osoan sakabanatu ziren, baina gehienak lehen herenean pilatu ziren. Lau euri-egunetan euri kantitatea oso ugaria izan zen, 30 mm baino gehixeago pilatu zen. Tenperaturari dagokionez, apirila ohikoa eta bero artekoa izan zen. Kostaldean batez besteko tenperatura 12-13 °C ingurukoa izan zen eta Arabako Lautadan 10 °C ingurukoa. Apirilaren 13ra artea egun hotzak nagusitu ziren, eta orduetik aurrera beroak. Intsolazioa ohiko balioetatik hurbil egon zen.

Apirilean bigarren eta hirugarren koadranteko haizeak nagusitu ziren, nahiz eta egun batzuetan laugarren koadranteko haizea ere azpimarragarria izan. Haizea, orokorrean, indartsua izan zen, egun askotan bolada oso gogorak izan genituen, bai haizeguneetan bai haizeguneak ez diren lekuetan. Haize-boladek 4 egunetan gainditu zituzten 100 km/h-ak, beti hego-osagaikoak.

MAYO

El mes comienza con anticiclón de las Azores que se extiende por el Cantábrico en forma de cuña. El día 3 las altas presiones se retiran hacia el oeste y un frente transcurre por el Golfo de Bizkaia. El día 4 se forma un potente bloqueo en 500 hPa sobre Gran Sol que se extiende desde el norte de Islandia hasta el Cantábrico, teniendo su reflejo en superficie en una gran área de altas presiones con su centro al sureste de Islandia, con valores de hasta 1034 hPa. A partir del día 7 se establece una intensa circulación zonal, con paso continuo de frentes y pequeñas depresiones por el Cantábrico. A partir del día 12 predominan las altas presiones. A partir del día 16 las altas presiones se debilitan y una nueva vaguada se descuelga desde el Atlántico, con un frente ocluido en superficie. El día 17 se forma una gran área de bajas presiones sobre Francia y Países bajos. El día 18 un nuevo frente ocluido se mueve lentamente de este a oeste por el Golfo de Bizkaia y se forma una pequeña depresión en altura sobre los Pirineos, que luego se mueve hacia el este. El día 20 va en aumento la estabilidad. El día 21 las altas presiones se extienden desde el Golfo de Bizkaia hasta Irlanda. Al día siguiente nos encontramos bajo un pantano barométrico, formándose una pequeña baja térmica sobre el centro y sur de la Península por la tarde. Del 24 al 29 de mayo una dorsal en 500 hPa, con anticiclón en superficie centrado en las Azores. La dorsal en altura se estira hacia el norte con la rama fría penetrando por el todo el Golfo de Bizkaia. En superficie, el anticiclón apenas se mueve durante estas jornadas. El día 30 y 31 la dorsal situada sobre las Azores se desplaza hacia el este y se produce una clara advección cálida en todos los niveles.

El mes se ha comportado entre seco y normal, a excepción del nordeste de Gipuzkoa, muy húmedo. En correspondencia con estos acumulados los días de lluvia también han sido muy distintos. En el litoral ha habido entre 12 y 15, alguno más de lo normal; en la Llanada Alavesa unos 10, en la media; en la Rioja Alavesa tan sólo 5, casi la mitad de lo esperable. En cuando a episodios de precipitación, destacan claramente dos, el primero ocurrido el día 16 por la noche y primeras horas del día 17 y el segundo durante la noche del día 18 y primera mitad del día 19.

Las temperaturas medias califican el mes como muy frío en toda la CAPV, a excepción de la Rioja Alavesa, fría. En el litoral se han quedado aproximadamente entre los 13.5-14.5 °C, mientras que en la Llanada Alavesa no han llegado a los 12 °C. A pesar de la calificación, la insolación ha sido un 10-15 % más alta de lo habitual.

El viento predominante ha sido del norte, del cuarto cuadrante, sobre todo, en menor medida del primero, asociado éste a situaciones de tiempo estable, alternándose a lo largo del día con viento flojo y variable. Se superan los 100 km/h en contadas ocasiones.

MAIATZA

Hilabetearen hasieran Azoreetako antizikloia Kantauri Itsasoan ziri moduan zabaldu zen. Hilaren 3an presio altuak mendebaldera mugitu ziren eta fronte batek Bizkaiko golkoa zeharkatu zuen. Hilaren 4an 500 hPa-eko mailan blokeo indartsua sortu zen Sole Handian; Islandia iparraldetik Kantauri itsasoraino. Blokeo horren isla lurrazalean presio altuen eremu handi bat izan zen, zeinaren erdigunea Islandia hego-ekialdean zegoen, 1034 hPa-eko presioarekin. Hilaren 7tik aurrera zirkulazio zonal indartsua ezarri zen eta fronteak eta depresio txikiak bata bestearen atzetik pasa ziren. Hilaren 12tik aurrera presio altuak gailendu ziren. Hilaren 16tik aurrera presio altuek ahultzera egin zuten. Lurrazalean fronte okluito bat loturik zeraman beste aska bat hurbildu zen Atlantikotik. Hilaren 17an Frantzian eta Herbehereetan presio baxuen eremu bat sortu zen. Hilaren 18an beste fronte okluito bat igaro zen Bizkaiko golkotik, astiro, eta Pirinioetan goi-geruzan depresio aske txiki bat sortu zen, gero ekialdera aldendu zena. Hilaren 20an egonkortasuna handitu egin zen. Hilaren 21ean presio altuak Bizkaiko golkotik Irlandaraino zabaldu ziren. Hurrengo egunetan aintzira barometriko baten eraginpean egon ginen eta arratsaldean Iberiar penintsularen hegoaldean eta erdialdean bero-depresio bat sortu zen. Hilaren 24tik 29ra 500 hPa-eko mailan gailur bat izan genuen, lurrazalean, berriz, Azoreetako antizikloia. Goi-geruzako gailurra iparraldera zabaldu zen eta bere adar hotza Bizkaiko golkoan sartu zen. Lurrazaleko antizikloia ia ez zen mugitu egun haietan. Hilaren 30ean eta 31an Azore uharteetan zegoen gailurra ekialdera mugitu zen eta maila guztietan adbkezio beroa izan genuen.

Maiatza lehorra eta ohikoaren artekoa izan zen, Gipuzkoa ipar-ekialdean izan ezik, han oso hezea izan zen. Aurreko datuekin bat eginez, euri-egun kopurua ere oso ezberdina izan zen. Kostaldean 12 eta 15 artekoa, ohi baino egunen bat gehiago. Arabako Lautadan 10, batezbesteko balioa. Arabako Errioxan, aldiz, 5 besterik ez, hots, espero zitekeenaren ia erdia. Gertakariei dagokionez, bi nabarmendu behar dira: bat hilaren 16an gauean hasi eta hilaren 17an eguerdira bitartekoa eta, bestea, hilaren 18ko gauean hasi eta hilaren 19ko eguerdira bitartekoa.

Temperaturari dagokionez maiatza oso hotza izan zen EAE osoan, Arabako Errioxan izan ezik, han hotza. Kostaldean batez besteko tenperatura 13.5-14.5 °C artekoa izan zen, aldiz Arabako Lautadan ez ziren 12 °C-ra iritsi. Maiatza oso hotza izan arren, intsolazioa ohi baino %10-15 handiagoa izan zen.

Iparraldeko haizea izan zen nagusi, batez ere laugarren koadrantekoa. Gutxiagotan nagusitu zen lehenengo koadranteko haizea, batez ere eguraldia egonkorra izan zen egunetan; egun haietan haize ahula eta aldakorrarekin tartekatu zen egunean zehar. Haize-boladek 100 km/h-ko abiadura oso gutxitan gainditu zuten, kasu gehietan hego-mendebaldeko haize-boladak izan ziren.

JUNIO

El mes de junio comienza con una dorsal situada sobre las Azores desplazándose hacia el este, con una advección cálida en todos los niveles. El día 2 las altas presiones se alejan hacia el este del continente y permite el paso de un frente debilitado durante el día 3. El día 4 la situación cambia de forma notable, con la llegada de una vaguada de aire frío, con temperaturas de hasta $-20\text{ }^{\circ}\text{C}$ en el nivel de 500 hPa. En superficie tiene su reflejo en una depresión que se sitúa sobre las Islas Británicas, con un frente frío asociado que barre toda la Península. El día 6 una pequeña cuña anticiclónica penetra en el Cantábrico. En altura, una nueva vaguada favorece la formación de una depresión de génesis explosiva, bautizada como Miguel. Se forma al oeste de Galicia y se desplaza hacia el norte de Francia, cruzando el Golfo de Bizkaia. El día 8, jornada de transición. A partir del día 9 aparece una nueva vaguada de aire frío y entre los días 11 y 12 se forma una depresión fría sobre el Golfo de Bizkaia. Desde el día 13 las bajas presiones se desplazan hacia el norte y se sitúan sobre las Islas Británicas, formando una gran área de bajas presiones allí. Una gran depresión fría aparece en altura, moviéndose de manera errática. El día 16 se extiende el anticiclón de las Azores desde el oeste en forma de banda por el Cantábrico y oeste de Europa. El 22 de junio se acerca una borrasca por el Atlántico asociada a una vaguada en altura; dicha vaguada terminará por estrangularse dando origen a una DANA. La borrasca se queda estacionaria al oeste del Golfo de Bizkaia, sin llegar a penetrar en la Península. Esta situación se mantiene invariable durante días. Los días 26 y 27 se forma una baja térmica sobre la Península. Hacia el final del mes la DANA y la borrasca se sitúan en latitudes más altas, permitiendo que el anticiclón de Azores se extienda en cuña por el Cantábrico.

Los acumulados de precipitación califican el mes, en general, entre seco y muy seco. Como es de esperar, los días de lluvia están por debajo de lo normal, especialmente en la Llanada Alavesa, donde tan sólo ha habido dos. La excepción es la Rioja Alavesa, que con cinco días es prácticamente lo normal.

Las temperaturas medias han sido entre cálidas y muy cálidas. En el litoral se han superado los $18\text{ }^{\circ}\text{C}$, mientras que en la Llanada Alavesa han rondado los $17.5\text{ }^{\circ}\text{C}$. Aunque los primeros días son cálidos, el ambiente se va enfriando progresivamente y durante la primera quincena predominan los días fríos. En la segunda, sin embargo, lo hacen los cálidos.

El viento es local durante gran parte del mes. Por ello, predominan los vientos de componente norte en la costa. En el sureste de Álava el viento predominante ha sido el del segundo cuadrante. En las zonas intermedias, el viento ha sido en general flojo y variable durante las mañanas, fijándose del norte durante las tardes.

EKAINA

Azoreetako gailur batekin hasi genuen ekaina eta pixkanaka ekialdera mugitu zen; adbezio beroa izan genuen maila guztietan. Hilaren 2an presio altuak kontinentean ekialdera mugitu ziren eta hilaren 3an ahuldutako fronte bat iritsi zitzaigun. Hilaren 4an egoera nabarmen aldatu zen, aire hotzezko aska bat iritsi zenean; 500 hPa-eko mailan $-20\text{ }^{\circ}\text{C}$ inguruko tenperaturarekin. Lurrazalean Britainiar uharteetan zegoen depresioa izan zen askaren isla eta hari loturiko fronte hotz batek Iberiar penintsula osoa zeharkatu zuen. Hilaren 6an ziri antizikloniko txiki bat sartu zen Kantaurira. Goi-geruzan beste aska batek ziklogenesi leherkor bat sortzea erraztu zuen eta depresioari Miguel izena jarrai zioten. Galizia mendebaldean sortu zen eta Frantzia iparraldera mugitu zen Bizkaiko golkoa zeharkatuz. Hilaren 8a trantsizio eguna izan zen. Hilaren 9tik aurrera aire hotzezko beste aska bat sortu zen eta, hilaren 11tik 12ra bitartean, Bizkaiko golkoan depresio hotz bat sortu zen. Hilaren 13tik aurrera presio baxuak iparraldera mugitu ziren eta Britainiar uharteen parean kokatu ziren. Goi-geruzan depresio hotz bat sortu zen eta oso modu erratikoa mugitu zen. Hilaren 16an Azoreetako antizikloia Kantaurira eta Europa mendebaldera zabaldu zen. Hilaren 22an Atlantikotik depresio bat hurbildu zen, goi-geruzetan aska batekin; aska hura eten egin zen, goiz-geruzan askatutako depresio bat sortuz. Depresioa geldikor geratu zen Bizkaiko golkoan, baina Iberiar penintsulara sartu gabe. Egun batzuetan egoera hura ez zen aldatu. Hilaren 26an eta 27an bero-depresio bat sortu zen Iberiar penintsulan. Hilaren amaieran goi-geruzetan askatutako depresioa eta lurrazaleko depresioa latitudean iparraldera mugitu ziren, zirkulazio orokorrean sartuz. Orduan, Azoreetako antizikloia Kantaurira sartu zen ziri moduan.

Prezipitazioari dagokionez, oro har, ekaina lehorra eta oso lehorra izan zen. Espero zitekeen bezala, euri-egunak ohi baino gutxiago izan ziren, bereziki Arabako Lautadan non bi besterik ez ziren izan. Salbuespena Arabako Errioxa da, 5 euri-egun izan ziren, azken finean ia ohiko balioa.

Temperaturari dagokionez, ekaina beroa eta oso beroa izan zen. Kostaldean batez besteko tenperaturak $18\text{ }^{\circ}\text{C}$ -ak gainditu zituen, aldiz Arabako Lautadan $17.5\text{ }^{\circ}\text{C}$ ingurukoa izan zen. Lehen egunak beroak izan ziren, gainera anomalia oso altuekin, baina gero pixkanaka giroa hozten joan zen eta lehen hamabostaldian egun hotzak nagusitu ziren. Bigarrean, aldiz, egun beroak gailendu ziren.

la hilabete osoan tokian tokiko haizeak nagusitu ziren. Gauzak horrela, kostaldean iparraldeko haizea nagusitu zen. Araba hego-ekialdean bigarren koadranteke haizea nagusitu zen. EAE erdialdean oro har norabide aldakorreko haize ahula ibili zen goizetan eta arratsaldetan iparraldekoa nagusitzen zen.

JULIO

El mes de julio comenzó con tiempo algo inestable. El anticiclón de las Azores se estiró hacia el norte. El día 3 el anticiclón se desplazó hacia las Islas Británicas, al tiempo que una pequeña DANA se situaba al oeste de Galicia el día 4, la cual trajo vientos del sur y un ascenso notable de las temperaturas. Fruto de esta inestabilidad se vuelven a formar tormentas por la tarde. El día 8 la DANA se desplazó hacia el este y se situó sobre la Península. El día 9 la DANA continuó su movimiento hacia el este y con ella la inestabilidad fue a menos, mejorando el tiempo de forma clara desde las horas centrales. A partir del 10 las altas presiones son las claras protagonistas. El anticiclón de las Azores penetró en forma de cuña por el Cantábrico. El alta de Azores se estiró hacia el norte, enlazando con el de Islandia, bloqueando la circulación del oeste. El día 15 las altas presiones se situaron sobre las Islas Británicas. Al día siguiente el alta de Azores enlazó con ellas, sin grandes cambios en varios días. El día 22 entramos en un periodo de temperaturas muy altas. Se formó un bloqueo anticiclónico en forma de omega en el nivel de 500 hPa que se extendió desde el norte de África hasta Centroeuropa. En superficie se vio reflejado en un área de altas presiones sobre los Alpes el día 22 y luego sobre Alemania. A últimas horas del día 25, pero sobre todo a partir del día 26, el tiempo cambió de forma radical. Una vaguada en el nivel de 500 hPa consiguió penetrar desde el Atlántico, renovando la masa de aire. Cambiamos una subtropical continental, procedente del norte de África, por una polar marítima, mucho más fresca. En superficie tuvo su reflejo en un frente que nos cruzó durante las primeras horas del día 26. El sábado 27 la vaguada terminó de cruzar la Península con un nuevo frente frío, que nos afectó durante la mañana. El domingo 28 una pequeña cuña de altas presiones penetró por el Cantábrico.

El mes se ha comportado entre normal y húmedo. Esta última calificación se ha dado sobre todo en una franja que va desde la comarca de los Valles Alaveses hasta Gernika-Bermeo, especialmente favorecida por el paso de tormentas. Los días de lluvia han rondado los habituales en esta época del año, que varían de los ocho en litoral oriental, a los cuatro en el interior de Álava. Se han concentrado en el primer y último tercio del mes. Ha habido cuatro días de precipitaciones muy abundantes (≥ 30 mm).

Las temperaturas medias califican el mes como muy cálido. En el litoral han rondado los 21 °C, en la Llanada Alavesa los 20 °C. El predominio de los días cálidos ha sido casi absoluto, tan sólo ha habido algunos días fríos a finales de mes.

Los flujos del primer y del cuarto cuadrante han sido los predominantes a lo largo del mes. En general, se ha tratado de vientos poco intensos, con régimen de brisas en el litoral. En el último tercio del mes, el predominio es compartido con los flujos del sur.

UZTAILA

Uztaila giro zertxobait ezegonkorrekin hasi zen. Azoreetako antizikloia iparralderantz luzatu zen. Hilaren 3an, antizikloia Britainiar uharteetarantz mugitu zen. Bitartean, goi-geruzetan askatutako depresio txiki bat Galizia mendebaldean kokatu zen hilaren 4an. Hark hegoaldeko haizea eta tenperaturaren gorakada nabarmena eragin zituen. Ezegonkortasun haren ondorioz, arratsaldean ekaitzak sortu ziren berriro ere. Hilaren 8an, goi-geruzetan askaturiko depresioa ekialderantz mugitu eta Iberiar penintsulan kokatu zen. Hilaren 9an, depresio askeak ekialderantz mugitzen jarraitu zuen eta ezegonkortasuna gutxitu egin zen eguerditik aurrera. Hilaren 10etik aurrera presio altuak nagusitu ziren. Azoreetako antizikloia ziri moduan sartu zen Kantauri itsasoan. Azoreetako antizikloia iparralderantz luzatu zen Islandiakoarekin bat eginez eta mendebaldeko zirkulazioa eten zuen. Hilaren 15ean, presio altuak Britainiar uharteetan kokatu ziren. Hurrengo egunean, Azoreetako antizikloiarekin bat egin zuten, eta egun batzuetan ez zen aldaketarik izan. Hilaren 22an, temperatura altuko denboraldi bat hasi zen. Ekain amaieran izan genuen egoeraren antzekoa nagusitu zen. 500 hPa-eko mailan antizikloiak omega itxura hartu zuen blokeo egoera bat sortuz, eta Afrika iparraldetik Europa erdialderaino zabaldu zen. Lurrazalean, presio altu moduan islatu zen Alpeen inguruan hilaren 22an eta ondoren Alemanian. Hilaren 25eko azken orduetan, baina bereziki hilaren 26tik aurrera, eguraldia erabat aldatu zen. 500 hPa-eko mailan Atlantikotik aska bat iritsi zen eta aire masa berritu egin zuen. Afrika iparraldean jatorria zuen aire masa subtropikal kontinental bat aldendu eta itsasaldeko polar bat iritsi zen, askoz freskoagoa. Lurrazalean, fronte batek eragin zigun, hilaren 26ko lehenengo orduetan igaro zen. Hilaren 27an, askak eta berari loturiko fronte hotz batek penintsula zeharkatu zuten eta goizean eragin ziguten. Hilaren 28an, presio altuko ziri txiki bat Kantauri itsasotik sartu zen.

Uztaila ohikoa edo hezea izan zen. Arabako bailaretatik Gernika-Bermeo arteko zonaldean izan zen bereziki hezea, batez ere ekaitzen ondorioz. Euri-egun kopurua ohikoa izan zen; ekialdeko kostaldean zortzi izan ziren eta Araba erdialdean lau. Euri-egunak hilaren lehen eta azken herenean izan ziren. Lau egunetan prezipitazioa oso ugaria izan zen (≥ 30 mm).

Temperaturari dagokionez, uztaila oso beroa izan zen. Kostaldean batez besteko temperatura $21\text{ }^{\circ}\text{C}$ izan zen eta Arabako Lautadan $20\text{ }^{\circ}\text{C}$ inguru. Egun beroak gailendu ziren, eta hilabetearen amaieran soilik izan genituen egun hotz batzuk.

Lehenengo eta laugarren koadranteko fluxuak nagusitu ziren. Oro har, haizea ez zen indartsu ibili eta kostaldean brisa altxatu zen. Hilabetearen azken herenean, hegoaldeko haizea ere ibili zen tarteka.

AGOSTO

Comenzó con el paso durante la mañana de una pequeña vaguada en el nivel de 500 hPa. A partir del día 2 se volvió a la estabilidad. Nos quedamos bajo la influencia del alta de Azores, que penetró en forma de cuña a partir del día 3 y la típica baja térmica que se formó en el centro-sur de la Península. El día 6 cambia la situación sinóptica. Se descolgó una depresión por el Atlántico y se situó al oeste de Galicia. Se fue profundizando hasta los 978 hPa en su seno el día 8 y a la vez se fue desplazando hacia las Islas Británicas, donde se situó el día 9. A partir del 10 el tiempo vuelve a cambiar. Sin embargo, el cambio más notable se dio el día 11. Una vaguada en el nivel de 500 hPa guiada en superficie por un pequeño. Tras el paso de la vaguada penetra de nuevo el anticiclón de las Azores en forma de cuña y el tiempo va mejorando, especialmente durante el día 13. Del 14 al 18 de agosto el tiempo se mantiene anticiclónico. Del 19 al 21 de agosto en el nivel de 500 hPa se formará una vaguada importante de gran extensión, que irá desalojando el aire cálido hacia el Mediterráneo. En superficie se mantendrá la alta presión aunque ya más degradada. Del 22 al 24 de agosto se restablece el cinturón de altas presiones, abarcando desde el Atlántico hasta Rusia. La circulación en el nivel de 500 hPa será zonal con poco gradiente. Del 25 al 28 de agosto se descolgará una DANA de la circulación general, penetrando en la Península desde el Atlántico y cruzando por el centro de ésta hacia el Mediterráneo. De cara a los últimos días del mes se restablecerá la circulación zonal, con escaso gradiente y el paso de una vaguada muy poco marcada que dejará algo de inestabilidad por el norte peninsular. Las altas presiones se volverán a extender desde Azores hasta Rusia.

El mes se ha comportado entre seco y normal. Esa primera calificación se ha dado sobre todo en Bizkaia y el este de Gipuzkoa, la segunda en el resto del territorio, con valores incluso por encima de la media en puntos del interior de Álava. Los días de lluvia han estado algo por debajo del promedio, variando desde los aproximadamente 3 días en el interior de Álava, a los 9 en el nordeste de Gipuzkoa. Éstos han estado repartidos a lo largo del mes. Tan sólo ha habido dos días de acumulados muy abundantes, el 1 y el 11.

Las temperaturas medias califican el mes entre cálido y muy cálido. En el litoral se han situado entre los 20-21 °C y en la Llanada Alavesa se han acercado a los 20 °C. En el primer y último tercio del mes han predominado los días cálidos, mientras que en el segundo lo han hecho los fríos. No ha habido episodios de calor generalizado, exceptuando en tres ocasiones en determinadas zonas.

Predominio del viento flojo y variable, con viento más intenso del primer cuadrante durante las tardes, que deja algunas rachas fuertes en el interior de Álava.

ABUZZTUA

Abuztua 500 hPa mailan goizean pasa zen aska txiki batekin hasi zen. Hilaren 2tik aurrera egonkortasuna berreskuratu genuen. Azore uharteetako antizikloia mendean egon ginen; hilaren 3tik aurrera ziri itxura hartu zuten presio altuek gurean. Iberiar penintsularen erdialdean eta hegoaldean bero-depresioa garatu zen. Hilaren 6an egoera sinoptikoa aldatu egin zen. Atlantikoko depresio bat Galizia mendebaldean kokatu zen. Hilaren 8an presioa 978 hPa ingurura jaitsi zen depresioaren erdigunean; gero hilaren 9an Britainiar uharteetara mugitu zen. Hilaren 10etik aurrera eguraldia aldatu egin zen berriro ere. Hilaren 11an izan zen eguraldiaren aldaketa nabarmenagoa. 500 hPa-eko mailan aska bat agertu zen, eta lurrazalean fronte txiki batek eragin zigun. Aska pasa ondoren, gurean Azoreetako ziri antiziklonikoa gailendu zen berriro ere, eta eguraldiak egonkortzera egin zuen, batez ere hilaren 13an. Abuztuaren 14tik 18ra antizikloia nagusitu zen. Abuztuaren 19tik 21era 500 hPa-eko mailan aska sakon eta zabal bat sortu zen eta aska horrek aire beroa Mediterraneo aldera bultzatu zuen. Lurrazalean presio altuen eraginpean jarraitu genuen, baina ahultzera egin zuten. Abuztuaren 22tik 24ra presio altuen gerrikoa berrezarri zen, Atlantikotik Errusiaraino. 500 hPa-eko mailan zirkulazio zonala nagusitu zen, gradiente txikiarekin. Abuztuaren 25etik 28ra zirkulazio orokorretik depresio bat askatu zen goigeruzetan, eta depresio hark Penintsula zeharkatu zuen Mediterraneora bidean. Azken egunetan zirkulazio zonala berrezarri zen, gradiente txikiakoa. Aska txiki bat pasa zen eta Penintsularen iparraldean ezegonkortasuna handitu egin zen apur bat. Presio altuak Azore uharteetatik Errusiara hedatu ziren.

Abuztua lehorra eta ohikoaren artekoa izan zen. Lehorra bereziki Bizkaian eta Gipuzkoa ekialdean, eta ohikoa gainerako tokietan. Araba erdialdeko zenbait tokitan batezbestekoa baino prezipitazio zertxobait gehiago pilatu zen. Euri-egunak batezbestekoa baino apur bat gutxiago izan ziren: Araba erdialdean gutxi gorabehera 3 izan ziren eta Gipuzkoa ipar-ekialdean 9. Euri-egunak hilabete osoan sakabanatu ziren. Bi egunetan soilik izan zen pilatutako prezipitazio oso ugaria, hilaren 1ean eta 11n.

Tenperaturari dagokionez abuztua beroa eta oso beroa artekoa izan zen. Kostaldean batez besteko tenperatura 20-21 °C ingurukoa izan zen eta Arabako Lautadan 20 °C-ra hurbildu ziren. Abuztuaren lehen eta azken herenean egun beroak nagusitu ziren eta bigarrenetan hotzak. Leku gehienetan beroa egin zuen gertaerarik ez zen egon, hiru alditan bakarrik egin zuen bero eremu konkretu batzuetan.

Norabide aldakorreko haize ahula nagusitu zen. Arratsaldetan ipar-ekialdeko haizea indartu egiten zen eta Araba barnealdean bolada gogorrak neurtu ziren.

SEPTIEMBRE

El mes de septiembre comienza con el paso de un debilitado frente frío. El día 2 el anticiclón de las Azores se extiende hacia el este. El día 3 el alta de las Azores se retira hacia el oeste, pero el tiempo se mantiene estable, con cielos poco nubosos y vientos en régimen de brisas. Durante el día 4 el tiempo fue cambiando. Una pequeña vaguada se descuelga y cruza el Cantábrico. El día 5 penetra en anticiclón Atlántico. A partir de del día 6 el anticiclón atlántico penetra ligeramente hacia el este. El día 9 es un día de transición, puesto que ya durante la tarde y noche penetra otro frente frío activo, reflejo de una vaguada profunda que se descuelga por el Golfo de Bizkaia y Pirineos en el nivel de 500 hPa. A partir del día 12 el alta de las Azores se extiende por el Cantábrico. Del 15 al 21 de septiembre la situación cambia hacia una atmósfera algo más inestable. La DANA se desplaza erráticamente, primero hacia el oeste y luego hacia el centro de la Península. Es realimentada desde el oeste gracias a una vaguada que se descuelga hacia el oeste de la Península, a la altura de las Azores. Sin embargo, las altas presiones se centran sobre las Islas Británicas, moviendo su centro alrededor de las mismas, con un máximo de 1032 hPa el día 19. El día 22 un extenso frente frío, reflejo de una vaguada en el nivel de 500 hPa, cruza la Península de oeste a este de forma rápida. Del 23 al 30 de septiembre se impone la circulación zonal en el nivel de 500 hPa, más activa sobre los las Islas Británicas, donde el paso de frentes y depresiones fue constante. Sobre la Península penetra el anticiclón de las Azores y diversos frentes rozan el Cantábrico.

Este mes ha habido una gran variedad de calificaciones de precipitación a lo largo del territorio, desde seco o muy seco en Gipuzkoa, a húmedo o muy húmedo en zonas del sur de Álava. Entre ambos extremos, Bizkaia y el interior de Álava se han quedado entre normal y húmedo. En general, los días de lluvia han superado ligeramente el promedio climatológico. En el litoral más oriental se encuentran por debajo, mientras que en el occidental están claramente por encima. Tan sólo ha habido un día de acumulados muy abundantes, el 10.

Las temperaturas medias califican el mes, en general, de manera normal, aunque sube a cálido en la Rioja Alavesa. En el litoral se han situado entre los 18-19 °C y en la Llanada Alavesa se han acercado a los 17 °C. En general, en la primera quincena del mes han predominado las jornadas frías, mientras que en la segunda lo han hecho las cálidas.

En el primer tercio del mes ha predominado la componente norte. En los días centrales han soplado flujos continentales y del Levante. El resto del mes ha sido para los flujos ibéricos del tercer cuadrante, salpicados por situaciones de viento sur. Los episodios de rachas más altas se han dado en este último periodo.

IRAILA

Irailaren hasieran fronte hotz ahul batek zeharkatu zuen EAE. Hilaren 2an Azoreetako antizikloia ekialdean zabaldu zen. Hilaren 3an Azoreetako antizikloia mendebalderago kokatu zen, baina eguraldiak egonkorra izaten jarraitu zuen. Hilaren 4an eguraldia aldatuz joan zen. Aska txiki batek Kantauri itsasoa zeharkatu zuen. Hilaren 5ean Atlantikoko antizikloia gurean zabaldu zen eta iparraldeko fluxua gailendu zen. Hilaren 6tik aurrera Atlantikoko antizikloia ekialdera zabaldu zen eta eguraldiak argitzera egin zuen. Hilaren 9a trantsizio egun bat izan zen. Arratsalde-gau partean beste fronte hotz batek eragin zigun; 500 hPa-eko mailan Bizkaiko Golkoan eta Pirinioetan agertu zen aska sakon baten isla, hain zuzen. Hilaren 12tik aurrera Azoreetako antizikloia Kantauri itsasoan zabaldu zen. Irailaren 15etik 21era bitartean eguratsak ezegonkortzera egin zuen. Noraezean ibili zen goi-geruzetan askatutako depresioa, lehenengo Iberiar penintsularen mendebaldean kokatu zen eta gero erdialdean. Gero, Azore uhartearen inguruan sortu zen aska bat Iberiar Penintsularen mendebaldera hurbildu zen eta goi-geruzetako depresio askea indarberritu egin zen. Alabaina, Britainiar uharteetan presio altuak nagusitu ziren (hilaren 19an erdigunean 1032 hPa-ko presio maximoa neurtu zen). Hilaren 22an 500 hPa-eko mailako aska baten isla zen fronte hotz luze batek Iberiar penintsula mendebaldetik ekialdera azkar zeharkatu zuen. Irailaren 23tik 30era 500 hPa-eko mailan zirkulazio zonala nagusitu zen, Britainiar uharteetan indartsuago; han fronteak eta depresioak bata bestearen atzetik etengabe pasa ziren. Iberiar penintsulan Azoreetako antizikloia gailendu zen; zenbait frontek Kantauri itsasoa zeharkatu zuten.

Prezipitazioarekin loturiko kalifikazioari dagokionez, denetatik izan zen. Gipuzkoan iraila lehorra edo oso lehorra izan zen, Araba hegoaldeko zenbait tokitan, berriz, hezea edo oso hezea. Bi mutur horien artean, Bizkaia eta Araba erdialdea, horietan ohikoa edo hezea izan zen. Euri-egunen kopurua batezbestekoa baino apur bat handiagoa izan zen, kostaldearen ekialdean txikiagoa, baina mendebaldean handiagoa, nabarmen gainera. Hilaren 10ean baino ez zen prezipitazioa oso ugaria izan.

Batez besteko tenperaturari dagokionez, iraila ohikoa izan zen, Arabako Errioxan izan ezik, han beroa izan zen. Kostaldean batez besteko tenperatura 18-19 °C artekoa izan zen, Arabako Lautadan 17 °C ingurukoa. Hilabetearen lehenengo hamabostaldian egun hotzak gailendu ziren, aldiz bigarreanean beroak izan ziren nagusi.

Hilabetearen lehenengo herenean ipar-osagaia izan zen nagusi. Erdiko egunetan fluxu kontinentalak edo Levantekoa nagusitu zen. Gainerako egunetan hirugarren koadranteko fluxu iberikoa gailendu zen, hegoaldeko haizearekin tartekatuz. Azken egun haietan izan ziren hilabeteako haize-boladarik indartsuenak.

OCTUBRE

Durante la segunda mitad del día 1 pasa un frente frío por la región, con flujos del noroeste. El día 2 un pequeño frente ocluido cruza el territorio durante la mañana y por la tarde penetran las altas presiones desde el oeste. Del 3 al 5 predomina una cuña de altas presiones en el Cantábrico. Del 6 al 8 predominan las altas presiones, con el anticiclón de las Azores penetrando en forma de cuña hasta el suroeste de Francia. El día 8 por la tarde llega un frente algo debilitado a la región. Tras el paso del frente el día 9, vuelve a entrar el anticiclón de las Azores en forma de cuña por el Cantábrico. A partir del día 10 las altas presiones son las protagonistas. Una dorsal se desplaza desde el norte de África hasta el Mediterráneo occidental. El lunes 14 se descuelga una vaguada desde el Atlántico y un frente frío en superficie cruza el territorio durante las horas centrales del día. Del 15 al 16 las altas presiones penetran desde el suroeste de la Península, con flujo zonal en el nivel del 500 hPa. Fruto de la circulación zonal los días 17 y 18 cruzan la región dos frentes muy debilitados. Del 19 al 24 una borrasca con diversos frentes asociados circula cerca de las Islas Británicas y forma una vaguada. Los días 21 y el 22 ésta se estrangula y deriva en una DANA, que afecta durante su recorrido por la península ibérica de diferentes maneras. Tras el paso de la DANA, las siguientes jornadas vienen marcadas por una pequeña dorsal anticiclónica que trae estabilidad al territorio. Las altas presiones en superficie dominan durante estos días, marcados también por una entrada de aire cálido. Aunque el tiempo sigue siendo anticiclónico, la diferencia respecto a los días anteriores es que la dorsal va retirándose y sobre el alta de Azores transcurren pequeñas bajas con sistemas frontales asociados.

El mes se ha comportado de manera normal en el litoral y seco en el interior. Los días de lluvia han rondado el promedio climatológico, por arriba en el litoral, unos trece, y por debajo en el sur, unos ocho en la Llanada Alavesa. Se han concentrado sobre todo entre el día 14 y el 24. Ha habido tres días de acumulados muy abundantes: el 2, 20 y 22.

Las temperaturas medias califican el mes de manera muy cálida. En el litoral han rondado los 17 °C y en la Llanada Alavesa los 14 °C. En el primer tercio del mes las medias se han movido en valores normales. A partir de entonces el predominio es para los días cálidos, en algunos casos con anomalías importantes, exceptuando del 20 al 24, fríos.

Durante el primer tercio del mes predominan los vientos de primer cuadrante, con un par de días de brisas. Durante el segundo tercio predomina el viento de componente sur y el viento se intensifica. Durante el último tercio el viento es algo más variable, aunque en general predominan los flujos del segundo cuadrante; la intensidad baja en general, aunque la racha más intensa del mes se registra durante estos días finales.

URRIA

Hilaren 1ean, egunaren bigarren partean, fronte hotz batek lurraldea zeharkatu zuen eta ipar-mendebaldeko haizea ibili zen. Hilaren 2an, goizean, fronte okluditu txiki bat pasa zen lurraldetik eta arratsaldean mendebaldean nagusi ziren presio altuak gurean zabalduz joan ziren. Urriaren 3tik 5era Kantauri itsasoan presio altuak zabaldu ziren, ziri itxura hartuz. Urriaren 6tik 8ra Azore uharteetako ziri antiziklonikoa Frantziako hego-mendebaldean zabaldu zen eta presio altuak izan ziren nagusi. Hilaren 8an, arratsaldean, fronte ahul bat heldu zen gurera. Urriaren 9an, frontea pasa ondoren, ziri antiziklonikoa zabaldu zen berriro Kantauri itsasoan. Hilaren 10etik aurrera presio altuak nagusitu ziren. Astelehenean, hilak 14, Atlantikotik aska bat etorri zen eta egunaren erdiko orduetan lurrazalean fronte hotz batek lurraldea zeharkatu zuen. Urriaren 15etik 16ra Penintsularen hego-mendebaldetik hasita, presio altuak zabaldu ziren gurean eta 500 hPa-eko mailan zirkulazio zonala ezarri zen. Urriaren 17tik 18ra bitartean, zirkulazio zonala nagusi zela, bi fronte ahul pasa ziren EAetik. Urriaren 19tik 24ra bitartean zenbait fronte lotuta zituen depresio bat Britainiar uhartearen inguruan mugitu zen eta goi-geruzan aska bat sortu zen. Hilaren 21ean eta 22an aska hura zirkulazio zonaletik askatutako depresio isolatua bilakatu zen, eta Iberiar penintsulan mugitu zenean modu ezberdinetan eragin zigun. Aipatutako goi-geruzako depresio askea pasa ondoren, hurrengo egunetan gailur antizikloniko txiki bati esker egonkortasuna izan zen nagusi gurean. Presio altuak gailendu ziren lurrazalean eta aire-masa beroa zabaldu zen. Hilabetearen amaieran aire-masa beroaren eraginpean jarraitu genuen. Eguraldiak antiziklonikoa izaten jarraitu zuen, baina aurreko egunetan ez bezala, goi-geruzan gailurra desagertu zen eta Azoreetako antizikloiaren iparraldetik depresio txikiak pasa ziren, fronte-sistemekin batera.

Urria kostaldean ohikoa izan zen, barnealdean lehorra. Euri-egunen kopurua batezbesteko klimatologikoaren ingurukoa izan zen kostaldean; 13 euri-egun. Hegoaldean, berriz, batezbestekoa baino apur bat txikiagoa izan zen; Arabako Lautadan 8 euri-egun. Euri-egun gehienak hilaren 14tik 24ra bitartean izan ziren. Hilaren 2an, 20an eta 22an prezipitazioa oso ugaria izan zen.

Urria oso beroa izan zen. Kostaldean batez besteko tenperatura 17 °C ingurukoa izan zen, Arabako Lautadan, berriz, 14 °C ingurukoa. Hilabetearen lehenengo herenean batez besteko tenperatura ohikoa izan zen. Orduetik aurrera, ordea, egun beroak izan ziren nagusi, zenbait kasutan anomalia handiekin, gainera, hilaren 20tik 24ra bitarteko egunak izan ezik, haiek hotzak izan ziren.

Hilabetearen lehenengo herenean lehen koadranteko haizea izan zen nagusi; zenbait egunetan brisa ibili zen. Bigarren herenean hego-osagaiko haizea gailendu zen eta haizea indartu egin zen. Azken herenean haizea aldakorra izan zen, bigarren koadranteko fluxua nagusi zela; haizeak ahultzera egin zuen, baina urriko haizeboladarik indartsuena orduan neurtu zen.

NOVIEMBRE

Noviembre comenzó con tiempo revuelto. La circulación zonal fue poco a poco más intensa. El día 3 la circulación zonal se intensificó. En superficie la depresión Amelie, cruzó el Cantábrico. Durante dos semanas estuvimos inmersos en un ciclo de mal tiempo, claramente otoñal, incluso con tintes invernales. Seguimos con la intensa circulación zonal en todos los niveles y el continuo paso de frentes y borrascas, que en ocasiones circularon a la altura de la Península. A partir del día 19 se corta el flujo zonal por unos días. El tiempo mejora transitoriamente con la entrada de una pequeña dorsal en el nivel de 500 hPa el día 19. El día 20, sin embargo, se descuelga una nueva vaguada por el Atlántico, aunque esta vez trae vientos de componente sur. El día 22 volvemos a tener otro temporal. Una profunda vaguada se extendió desde las Islas Británicas hasta el Cantábrico, con dos centros en el nivel 500 hPa, uno sobre las Islas Británicas y otro secundario al norte de Galicia. En superficie tuvo su reflejo en la profunda depresión Cecilia. La mejoría se confirmó durante el domingo día 24. A partir de del día 25 son las altas presiones las que fueron las protagonistas hacia el sur de la Península, con una clara circulación zonal. Con esta configuración se suceden los pasos de varias borrascas en dirección hacia las Islas Británicas, incluida los restos de la tormenta tropical Sebastien.

Este mes ha sido extremadamente húmedo en toda la CAV. Los acumulados siguen la distribución espacial habitual, aunque con cantidades muy por encima de lo esperable. Los valores más altos se encuentran en el nordeste de Gipuzkoa, muga ya con Navarra. En la mayor parte del territorio ha llovido más del doble de lo normal. A grandes rasgos, se puede decir que en el litoral, hacia el Duranguesado y la Llanada Alavesa ha sido el noviembre más lluvioso desde que existen registros. Lógicamente, ha habido un gran número de días de lluvia (≥ 1 mm). En el litoral ha habido unos 25, en la Llanada Alavesa 22, nada más y nada menos que el doble de lo esperable. Pero es que en la Rioja Alavesa ha habido 20 o 21. Once de estos días lo han sido de precipitaciones muy abundantes (≥ 30 mm).

Las temperaturas medias califican el mes de manera normal, aunque tendiendo a frío, especialmente hacia el litoral. En la franja costera se han movido entre los 11-12 °C y en la Llanada Alavesa han rondado los 8 °C. A comienzos y a finales de mes los días han sido cálidos. En medio han predominado los fríos.

Durante la primera mitad del mes han predominado los vientos del cuarto cuadrante, también del primero. Durante todas esas jornadas la intensidad del viento es alta y todos los días se registran rachas muy fuertes de viento en alguna estación de la red. Los días 18 y 19 son días de transición. Así, a partir del día 20 el viento predominante pasa a ser del sur y vuelve a ganar intensidad, destacando el día 22.

AZAROA

Azaroaren hasieran eguraldia nahasia izan zen. Zirkulazio zonala indartu egin zen pixkanaka, nabarmenki hilaren 3an. Lurrazalean Amelie izeneko depresioak Kantauri itsasoa zeharkatu zuen. Bi astetan udazken giroa izan genuen, zenbait unetan negukoa. Maila guztietan zirkulazio zonala gailendu zen, eta depresioak eta fronte-sistemak etengabe pasa ziren mendebaldetik ekialdera, zenbait kasutan Penintsula paretik. Hilaren 19tik aurrera zirkulazio zonala eten egin zen. 500 hPa-eko mailan gailur txiki bat zabaldu zen eta eguraldiak hobera egin zuen. Hilaren 20an, ordea, Atlantikotik beste aska bat iritsi zen gurera, baina orduan hegoaldeko haizea nagusitu zen. Hilaren 22an beste denborale bat izan zen. Aska bat Britainiar uharteetatik Kantauri itsasoraino hedatu zen, 500 hPa-eko mailan bi gune zituela, bat Britainiar uharteetan eta beste txikiago bat Galizia iparraldean. Lurrazalean Cecilia izeneko depresio sakonean izan zuen isla aska hark. Hilaren 24an eguraldiak egonkortzera egin zuen. Hilaren 25etik aurrera Iberiar penintsularen hegoaldean presio altuak izan ziren nagusi eta zirkulazio zonala ezarri zen. Depresio batzuk pasa ziren, Britainiar uharteetara bidean, haien artean Sebastian izeneko ekaitz tropikalaren hondarrak.

Azaroa erabat hezea izan zen EAE osoan. Pilatutako prezipitazioak ohikoa den banaketari jarraitu zion, pilatutakoa ohikoa dena baino askoz altuagoa izan arren. Horrela, Gipuzkoa ekialdea, Nafarroako mugatik oso gertu dagoen lur-eremua, izan zen eremurik euritsuena. Ia leku guztietan ohikoa den prezipitazioaren bikoitza pilatu zen. Kostaldean, Durangaldean eta Arabako Lautadan datuak jasotzen direnetik inoiz izandako azarorik euritsuena izan zen. Euri-egunak (≥ 1 mm), logikoki, oso ugariak izan ziren. Kostaldean 25 euri-egun inguru izan ziren, Arabako Lautadan 22, hau da, ohikoa denaren bikoitza. Arabako Errioxan ere ugariak izan ziren, 20 edo 21, ohikoa denaren hirukoitza, alegia. Euri-egun horien artean, hamaika egunetan izan zen prezipitazioa oso ugaria (≥ 30 mm).

Batez besteko tenperaturaren arabera, azaroa ohikoa izan zen, baina hotza izateko joerarekin, batez ere kosta partean. Kostaldean batez besteko tenperatura 11-12 °C ingurukoa izan zen, Arabako Lautadan 8 °C ingurukoa. Hilabetearen hasieran eta amaieran egunak beroak izan ziren, erdialdean, ordea, egun hotzak gailendu ziren.

Hilabetearen lehenengo erdian laugarren koadranteko haizea izan nagusi, lehenengo koadrantekoa ere ibili zen. Haizea indartsu ibili zen egun guzti haietan eta haize-bolada oso gogorak izan ziren egunero sareko estazioren batean behintzat. Hilaren 18a eta 19a iragate-egunak izan ziren. Hilaren 20tik aurrera haizea hegoaldeetik finkatu eta indartu egin zen; 22a izan zen egunik azpimarragarriena.

DICIEMBRE

Diciembre comenzó con tiempo revuelto. Se descolgó una vaguada en el nivel de 500 hPa con una depresión en superficie situada sobre Galicia que se fue desplazando hacia el sur de la Península. A su vez, un potente anticiclón se situó en las Islas. Durante el día 2, a la vez que se forma una DANA sobre el sur de la Península, las altas presiones británicas fueron cada vez más potentes. A partir del día 3 el tiempo mejoró de forma clara. Las altas presiones se fueron desplazando hacia el continente y en el Mediterráneo se mantuvo la DANA. A partir del día 8 se reactivó el flujo zonal, dejando una semana de tiempo revuelto, con el continuo paso de frentes. Del 14 al 22 de diciembre nos vimos afectados por tres importantes borrascas, bautizadas como Daniel, Elsa y Fabien. A partir del día 23 el tiempo se estabilizó de forma clara. Desde el norte de África una potente dorsal en el nivel de 500 hPa fue penetrando poco a poco, terminando por formarse un bloqueo en Omega que se extendió desde el norte de África hasta las Islas Británicas a partir del sábado 28 y hasta el día 31. En superficie tuvo su reflejo en un anticiclón que los días 23 y 24 se centró en la Península, el día 25 se fue desplazando hacia el norte y a partir del día 26 se centró sobre los Alpes con un máximo de 1042 hPa. A partir de entonces, en superficie se desplazó hacia los países nórdicos, formándose una alta secundaria sobre la Península de 1034 hPa los días 28 a 30.

Los acumulados de precipitación califican el mes como normal, localmente húmedo en puntos del litoral, del Alto Deba y de la Llanada Alavesa oriental. Los campos de precipitación se han alejado algo de la distribución habitual. En el este de Gipuzkoa hay marcadas desviaciones negativas respecto a lo normal. El número de días de lluvia (≥ 1 mm) ha sido prácticamente el normal en esta época del año, unos 12 en la vertiente cantábrica, 10 en el interior de la mediterránea y 6 en la Rioja Alavesa, concentrados básicamente en la segunda y tercera semana.

Las temperaturas medias califican el mes de manera muy cálida. En la costa han rondado los 11 °C y en la Llanada Alavesa han superado los 6 °C. El mes ha comenzado y ha finalizado con jornadas frías, pero en medio el predominio de las cálidas ha sido casi absoluto.

El mes se divide en tres períodos claramente diferenciados en cuanto al régimen de vientos. Durante la primera semana del mes el viento predominante es de componente norte, aunque a ratos sopla el viento del sur. La intensidad del viento es en general baja. A partir del día 8 cambia la configuración sinóptica y el viento predominante pasa a ser de componente oeste. El viento arrecia considerablemente. Durante el último tercio del mes, el viento de componente oeste pierde algo de fuerza y acaba soplando sin dirección fija. Durante estos últimos días del mes la intensidad del viento es la más baja del mes.

ABENDUA

Abenduaren hasieran eguraldia nahasia izan zen. 500 hPa-eko mailan aska bat inguratu zen, lurrazalean depresio batekin; hasieran depresioa Galizian kokatu zen eta, gero, Penintsularen hegoaldera zabaldu zen. Bitartean, Britainiar uharteetan antizikloi indartsu bat kokatu zen. Hilaren 2an Penintsularen hegoaldean goi-geruzan askatutako depresio bat sortu zen eta Britainiar uharteetako antizikloia indartu egin zen. Hilaren 3tik aurrera eguraldiak nabarmen egin zuen hobera. Presio altuak kontinentean zabaldu ziren; Mediterraneoan, berriz, goi-geruzan askatutako depresioaren eraginpean jarraitu zuten. Hilaren 8tik aurrera zirkulazio zonala berrezarri zen. Eguraldia nahasia izan zen egun haietan, fronteak etengabe pasatzen ziren EAetik. Abenduaren 14tik 22ra hiru depresio aipagarrik eragin ziguten: Daniel, Elsa eta Fabien. Hilaren 23an eguraldiak egonkortzera egin zuen nabarmen. 500 hPa-eko mailan gailur indartsu bat zabalduz joan zen gurean eta hilaren 28tik aurrera Europa mendebaldean Omega itxurako blokeoa sortu zen. Gailur horren isla lurrazalean hilaren 23an eta 24an Penintsulan kokatutako antizikloia izan zen; hilaren 25ean presio altu horiek iparraldera mugitu ziren. Hilaren 26tik aurrera Alpeetan kokatu zen antizikloia, 1042 hPa-eko presio maximoarekin. Ordutik aurrera presio altuak Europa iparraldean kokatu ziren; hilaren 28tik 30era Penintsulan gune sekundario bat sortu zen, 1034 hPa-ekoa.

Pilatutako prezipitazioaren arabera, hilabetea oro har ohikoa izan zen, baina kostaldeko, Debagoienako eta Arabako ekialdeko Lautadako zenbait tokitan hezea. Prezipitazio banaketa, ordea, ez zen ohikoa izan. Gipuzkoa ekialdean ohikoa dena baino prezipitazio gutxiago pilatu zen. Euri-egunen (≥ 1 mm) kopurua ohikoa izan zen, hau da, kantauri isurialdean 12 inguru, Mediterraneo isurialdeko erdialdean 10 eta Arabako Errioxan 6. Hilabetearen bigarren eta hirugarren astean izan ziren euri-egunak.

Batez besteko tenperaturaren arabera, hilabetea oso beroa izan zen. Batez besteko tenperatura kostaldean 11 °C ingurukoa izan zen eta Arabako Lautadan 6 °C-tik gorakoa. Hilabetearen hasierako eta amaierako egunak hotzak izan ziren, baina erdialdean egun beroak nagusitu ziren.

Haizeari dagokionez, hilabetea hiru zati ezberdinetan banatu zen. Hilabetearen lehenengo astean ipar-haizea izan zen nagusi, baina tarteka hegoaldekoa ibili zen. Haizea ez zen indartsua izan. Hilaren 8tik aurrera konfigurazio sinoptikoa aldatu egin zen eta haizeak mendebal-osagaira egin zuen. Haizea indartu egin zen nabarmen. Hilabetearen azken herenean, mendebaldeko haizeak ahultzera egin zuen eta amaieran aldakor ibili zen. Egun haietan haizearen intentsitatea hilabete osoko ahulena izan zen.